

ligatzeko manierak

V
GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

haurtzaindegiak
zigor enbeita
hala bedi & 20 urte
eneko llanos
aramaioko euskara

CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia


BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.

CEGASA
INTERNATIONAL



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - Apdo. 3280 - 01013 GASTEIZ

Bezeraentzako arreta telef.: 902 322 232 • E-mail: info@grupocegas.com • www.cegas.com

Fundación Sancho el Sabio Fundación

ahorik aho:

8-9.
orr.UDAL HAURTZAINDEGIEN
AUZIA: AMELIA BARQUIN10-11.
orr.BERTSOLARITZA: zigor
enbeita, 2003ko txapelduna12-13.
orr.HALA BEDI IRRATIA:
20 urte! zorionak!14-15.
orr.ENKO LLANOS: munduko
trialtloi txapelduna

gaika:

18-19.
orr."ARAMAIOKO EUSKARA" liburua,
txipi ormaetxea egilearen eskutikEUSKARAZ BIZIZ: bagare
bidaia, argia astekaria, izargi20-21.
orr.23-25.
orr.LIGATZEKO
MANERAK23-25.
orr.

BITXIGINTZA

GAINERA...

• Han-hemenka (4-7. orr):

Iritzian: ikasle abertzaleak & euskal herriko eskola. kolaborazioa: emaze sexologia elkarte & aniztasuna sexu orientazioan. ikusi: araba euskaraz-03 irudietan. araba bixotzian.

• KulturAisialdiari so (27-39. orr):

AGENDA (27). IDAZLEEN GURPILA (VIII)-ana arregi: "baietz esan eskatuko dizudan guztiari" (28-29). HISTORIA ZERTZELADAK-laminiturriko iñaki gorostidi: euskararen bidea (30-31). ARTE TXOKOA- iñigo sarasola, geu-ren komikigilea (32-33). naturaren isladak (33). bidaia: sahara (34). sukaldaritza (35). denbora-pasa (35). artista berrien txokoa (36). geu-ren gunea: arabako euskal hotsak, eta beste (37-38). komikia (39).

Azala ...



haurtzaindegia
zigor enbeita
hala bedi & 20 urte
eneko llanos
aramaioko euskara

Badirudi beroa eta eguraldi eguzkitsuarekin jendearen arteko hartu-emanek beste zapore bat hartzen dutela, oro har alaiago sentitzen garela akaso, baita geure gorputzak ere. Egun motzagoak, sarritan goibelagoak eta hotzagoak atzean utzita, kalera irteteko gogo handiagoari esker, pertsonen arteko komunikazioa eta maiz ligatzeko gogo areagotzen dira, antza... Ezohiko gaia izateagatik azala eskaintzea ideia polita iruditu zaigu, zergatik ez? Oraingo aleaz eta musuez goza zaitezte, ba!

argazkia: artxibo

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua

Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain, josune velez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa: e.b.z.
Testuen orrazketa-zuzenketa-

osaketak: e.b.z.
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola

Kolaboratzaileak: iñaki zorrakin, abarrots, ana arregi, iñaki gorostidi laminiturri, arte eta lanbide eskola, diocesanas-mendizorroztako ostalaritza eskola, emaze sexologia elkarte eta luma aldizkaria

Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



azaitz gartzia, ikasle abertzaleak-eko kidea

EUSKAL HERRIA DA GEURE ESKOLA

Aspaldi da euskal ikasleriak ikasteko duen grina erakutsi duela, nahiz eta jende askori hori gezur galanta irudit. Ikasleengan sinesten ez duten pertsona horien gainera, guk, ikasleok, beste eredu batean ikasi nahi dugu, urtean zehar ikasle euskaldun gisara ditugun eskubideak ez baitzaizkigu errespetatzen. Ezinezkoa egiten zaigu euskaraz ikastea, Euskal Herriko edudiak ikustea, eskolako arazoetan parte hartzea edota Euskal Herrian ikastea. Horiek dira beste gauza askoren artean, ikasturtean zehar Hezkuntza Sistema Nazional baten alde lanean jartzen gaituzten arrazoietariko batzuk.

Horren harira, askoren ahoetatik ateratzen diren gezurrak argitu beharrean gaude; ez baitugu hezkuntza propiorik, bi estatuk beraien behar eta nahien arabera antolaturiko hezkuntza dugu, besterik ez. Horrek suposatzen duen guztiarekin; euskaraz ikasteko ezintasuna, Espainiar eta Frantziar edukiak jaso beharra, eredu patriarkal bat bizitzea, edota inongo eskubiderik errespetatzen ez duten hezkuntza sistemen barruan egotea.

Baina ikaslea beti ikasle, inguruan dugunarekin eta gure ingurukoekin gozatu eta egoera iraultzeko prest gaude beti. Horrexegatik azkenengo hiru urteotan udan ere ikasteari ekin diogu, eskola ibiltaria antolatzeari, inguruko arazo soziopolitikoak zuzenean bizitzeari, euskaraz bizitzeari, elkarren arteko harremana garatzeari, besteak beste, urtean zehar gauzatu ezin dezakegun eredu

antolatzeari. Erortzen ikasten omen da ibiltzen, eta ibiliz ikasten da eskola ibiltarian. Lehendabizikoa Saratik-Elizondora, Ipar Euskal Herriatik Hego Euskal Herrira, mendietatik barrena; bigarrenkoa, Lekeitiotik-Bermeora, itsasoko muga ondoan genuela beti aurrera; hirugarrenkoa, Lizarratik-Araiara, lautadako lehorretik mendiaren berdera; eta azkenengo hau, Durangotik-Segurara.

Aurtengo eskola ibiltari honetan, mendiko indar eta edertasunean barrena ibiliko gara, Anbotoko lepotik eta Aitzgorriko tontorretik igaroz, eta bidean, aintzira ederrean bainatzeko aukera izanaz, besteak beste. Lehendabiziko egunean, "Durangotik Eskoriatzara", artzain baten bizitza ezagutu eta gabea izarrei buruzko eskola jasoko dugu; bigarrenean, "Eskoriatzatik Arantzazura", eskualdeak bizi duen egoeraren inguruko hitzaldia, eta gabea Peio Zabarena; eta azkenik hirugarrenean, "Arantzazutik Segurara", historiari buruz goatzeko hitzaldia, eta gabea, festa txikia egiteko aukera; baina bidean fauna eta flora ezagutzeko parada ere egongo da, beste hainbat gauzaren artean.

Euskal Herriko hizkuntzan bizi eta ikastera, harremanak garatzera, berdintasunean bizitzera, beste eskola eredu bat bizitzera goazelako, hain zuzen. Ez irakasteak ez du esan nahi ezin dezakegunik ikasi.

UZTAILAK 17, 18, 19. DURANGO-SEGURA.
ESKOLA IBILTARIAren IV. edizioa

**gure gizartean nagusi den sexualitateari
buruzko kontzeptutik ihes eginez**



EMAIZI
Sexologia Elkarte

ANIZTASUNA SEXU ORIENTAZIOAN

Zer esan nahi du homosexuala izatea?

Gauza bera al da homosexual, gay, lesbiana... izatea?

Kontua ez da bata edo bestea izatea, hetero edo homo izatea, baizik eta nor desiratzen dugun. Beraz, ni ez naiz homosexuala, heterosexuala edo bisexuala, baizik eta nire sexu bereko pertsona bat desiratzen badut, nire desira homosexuala izango da eta beste sexuko pertsona bat desiratzen badut, nire desira heterosexuala izango da. Eta kito! Azken batean gustu kontua baino ez da, eta gustuak ere aldatu egin daitezke, baina pertsona batzuk edo beste batzuk gustuko izateak ez du esan nahi gizon edo emakume bereziak garenik. Emakume naizen aldetik, pertsona altuak edo baxuak atsegin ditudan bezala, gizon bat edo emakume bat atsegin izanagatik ere emakume berbera izaten jarraituko dut. Horregatik, tontakeria da emakumezkoak gustatzen zaizkion gizonezkoak gizonagoa dela pentsatzea, edo emakumezkoak atsegin dituen neska mari-mutila dela esatea.

Desiraren orientazioa gustuen eta sentimenduen menpe dago, ez gure izaeraren menpe; emakumezkoak edo gizonezkoak atsegin dituzten emakumezkoak eta gizonezkoak gara.

Desira, erakarpena, pertsona batek eragiten digun morboa..., pertsona bat edo beste bat atsegin izatea, hori guztia **aldatu egin daiteke denboraren poderioz edo egoeren ondorioz,** eta oso erraza da estilo eta fisiko desberdinetako pertsonak erakartzea, edo baita sexu desberdinetako pertsonak ere.

Gure bizitzan aurrera egin ahala soilik gizonezkoenganako edo emakumezkoenganako erakarpena senti dezakegu, baina gai honi buruz egin diren azterketek, bi sexuetakoa pertsonenganako erakarpena sentitzea oso erraza dela diote. Horrek ez du esan nahi pertsona guztiok sexu bateko edo besteko pertsonak berdin erakarri behar gaituztela, baizik eta sexu bateko nahiz besteko pertsonekin izan ditzakegula praktika erotikoko, haienganako erakarpena, fantasiak edo ametsak.

Sexu bereko pertsonenganako desiraren orientazioa ez da, beraz, gutxi batzuei gertatzen zaien zerbait, gure "tolerantzia" merezi duen gutxiengoari gertatzen zaien zerbait. Ez da ezer bitxia, baizik eta guztiok, hein handiagoan edo txikiagoan, bizi dugun zerbait. **Homosexualitatea ez da ia inoiz besteei gertatzen zaien zerbait,** adiskideak, anaia-arrebak, lehengusuak... edo aita edo ama bera izan baitaitezke.

Pertsona batenganako sentitzen dugun erakarpenaren ondorioz gure bikotekide moduan maita dezakegu, edo, besterik gabe, pertsona horren edertasuna onar dezakegu. Mailaren eta intentsitatearen araberakoa da hori.

Gaur egun pertsona batzuek honelako galderak egiten dituzte oraindik:

Gay diren gizonezkoek gizon guztiak gustatzen zaizkie? Eta lesbianeek emakume guztiak?


Homosexualak promiskuoagoak dira? Harreman gehiago izaten dituzte?

Erakarpena selektiboa da, hori ez du inork zalantzan jartzen, eta horregatik pertsona heterosexualak kontrako sexuko pertsona "batzueganako" erakarpena sentitzen dute soilik, ez pertsona guztienganakoa. Gay eta lesbianen kasuak desberdina izan behar al du, bada? Ba ez, ez da desberdina. Pertsona bakoitzak, zein orientazio duen kontuan hartu gabe, desira sentituko du sentsazio hori pizten dioten pertsonenganako bakarrik. Gerta daiteke batzuetan pertsona asko izatea eta bestetan gutxi, baina horienganako besterik ez. Kasu bakoitza berezia da kontu horretan.

Pertsona guztiok desira ugari ditugu, batzuk txikiak eta behin-behinekoak eta beste batzuk handiagoak. Desira horiek izatea eta horiez gozatzea zoragarria da, eta ez dugu desiren aurrean izutu behar.

itzulpena: aztiri&geu

araba euskaraz 2003



Urte osoko lanak izan ohi du zerikusia uza jasotzerako orduan. Oionen urtebete eman dugu Araba Euskarazeko zirkuitua prestatzen eta dozenaka ikuskizun eta emanaldiz hornitzen, eguna iristean, aurrera egiteko behar beste indar piltzeko.

Aurtengoan, jende asko beldur bazen ere, ez dugu izan aurreko bi edizioetako bero saparik; eguraldiak zintzo portatzea erabaki eta itzal naturala eman digu, tenperatura epel-atsegina kaltetu gabe.

Eguraldia lagun, Oionen urruntasuna ez da oztopo izan milaka eta milaka euskaltzale bertaratzeko, ez eta Logroñon kendutako trafiko txartelak ere.

Behin herrira helduta aparkalekuak,

sarrerak, txosnak, jolasak, artisauak, emankizunak... dena prest izan da. Eta euskararen lagunok bizia eman diozue, giro paregabea sortuz hiru areatan eta ibilbidean zehar. Ekitaldi, dantzaldi, jolas, zurrutada, sabela asetzeko otartekoak eta itzalguneetako atsedenaldiak izan dira protagonista edizio honetan.


Jai giroan, euskararen aldeko sosak uztera etorri zareten euskaltzale guztioi mila esker borobil bihotz-bihotzez antolakuntzaren partetik.

Oiongo Ikastolak, arnas berria izango du orain aurrera egiteko eta uza berriak jasotzeko. Hala opa diogu ere Bastida Ikastolari: hurrengo urtean Araba Euskaraz arrakastatsua

izatea, eta guztion artean bilduz eta bilduz Araba euskaldunago bat egitea.

'araba euskaraz-2003'ko antolatzaileak





Araba bixotzian

ETXEBIZITZAK ETA ZOZKETAK

EZ ZAITEZTE URDURI JARRI ETA GOGOAN IZAN GARRANTZITUENA
EZ DELA ETXEA IRABAZTEA, ZOZKETETAN PARTE
HARTZEA BAIZIK!

ZOZKETAK 2003

SALBURUA	AM	MM	MM
IBAI ONDO	MM	MM	MM
LAKUA	MM	MM	MM





Amelia Barquin, UDAL HAURTZAINDEGIETA


berrehun plaza berri eskaini ditu bi urtekoentzat, eta horrekin beteko da dagoen eskaera eta akaso gaindituko da, zeren guraso askok konponbide pertsonala bilatu baitute.

Arazoa irailerako konponduta egongo dela uste al duzu?

Berrehun horiek ez dakit, Eusko Jaurlaritzaren esku dago eta irailerako prest egongo zirela esan zuten, baina ez dakigu zer pentsatu datu zehatzak falta ditugulako. Bi urtetik beherakoentzat, berriz, plaza batzuk sortuko dituzte; horretarako Jaurlaritzak eta Udalak partzuergo bat egingo dute: Jaurlaritzak jarriko du dirua, eta beharrezkoak diren egokitze lanak Udalak egingo ditu. Hori esan ziguten, baina oso kezkatuta gaude; alde batetik, 115 plaza besterik ez baitira, eta bestetik, irailerako ez direlako egongo.

Noizko egongo direla esan dizuete?

Azaroa-urria esaten dute. Nik ez dakit gai honi lehentasuna ematen dioten, ze gauzak garrantzizkoak direla uste dutenean azkarrago egiten dituzte, baina familia askotan hau da duten arazorik nagusia. Familia batzuetan bai amak eta bai aitak kanpoan lan egiten dute eta bi soldatak beharrezkoak dira, guztiok dakigulako zein garestiak diren etxebizitzak Gasteizen. Honekin ezin jolas daiteke. Alde batetik, mezu horiek jasotzen ditugu, umeak zein garrantzitsuak diren, jaiotzen aldeko kanpainak eta abar. Baina hau da agian egin behar duten gauzarik garrantzitsuena, ziurtatzea haurrak zainduta egongo direla gurasoak lanean dauden bitartean. Pentsa umearen aisialdirako zenbat



Zeintzuk dira salatzen dituzuen gabeziak?

Gasteiz osoan 600 familia geratu dira haurtzaindegi publikoetan lekuri ez dutela. Aurrematrikula egin eta gero horretaz konturatzean hasi ginen arduradunekin hitz egiten, kanpoan geratu ginenontzat zer lor genezake jakiteko. Niri, adibidez, aurtien iazko gauza bera gertatu zait: tokirik gabe geratu naizela. Beste guraso batzuk bezala oso haserre nago eta arduratuta.

Udalarekin hitz egin duzue. Zerbait lortu duzue?

Gasteizen Udal haurtzaindegiak daude eta pribatu gutxi batzuk. Baina ez dagoena da beste hiri batzuek dutena, bi urtekoentzako gelak ikastetxeetan. Haur eskolen eskuduntza Jaurlaritzarena da, baina Gasteizen Udalak egin izan duenez, Lakuak ez du ezer egin. Orain iritsi da momentu bat non haur guztientzako plazarik ez dagoen eta eman duten erantzuna motela baino motelagoa da: zer gertatzen den ikusi dute baina ez diote erremediorik jarri. Jaurlaritzak

EZ ONARTU 0-3 URTEKO UMEEN GURASO TALDEKO KIDEA:

"GURASO ASKORENTZAT HAURTZAINDEGI FALTA DA ARAZORIK LARRIENA"

Ongizatearen hiriaren eredu omen den Gasteizen 600 familia haurtzaindegi publikoetan lekurik gabe geratu dira datorren ikasturterako. Urtez urte errepikatzen den egoerari erantzun berezia eman dio aurten guraso talde batek: arazoa salatu, erakundeekin bildu, komunikabideetan elkartasuna lortu,... denetik egin dute. Ereindako haziaren uzta noraino iritsiko den, aldiz, ez dago argi oraindik eta irailean ikusiko da Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek egoeraren larritasunaz ohartu eta konponbidea jarri duten. Arazoa ez da txantxa, familia askoren bizitza baldintzatzen duelako: Nola beste haur bat ekarri lan egitera joatean norekin utzi ez badago? Nola saiatu lanera itzultzen? Eta nola ordaindu etxebizitza lanera itzultzen ez bazara?

aukera dauden Gasteizen: ludotekak, liburutegiak,... baina guk ez dugu hori behar, aisialdia guk geuk konponduko dugu.

Azpmarratu beharko zen Udal haurtzaindegiak ez direla doakoak...

Ez, batzuek asko ordaintzen dute, errentaren arabera egiten baita ordainketa. Batzuek 240 euro ere ordaindu dezakete, gehiago jangelarekin, hau da, pribatuak baino garestiagoak. Egia ere bada oso kalitate onekoak direla; ratioa da gela batean 18 ume eta bi irakasle.

Jaurlaritzakoetan 19 ume eta irakasle bat egoten dira. Nik ordaindu beharra zalantzan jartzen dut, zergak ordaindu eta gero zerbitzuak denontzat izan beharko liratekeela iruditzen zaidalako. Baina horretan ez gara sartu ere egin, eztabaidagarria bada ere, orain eskatzen duguna beste gauza bat da-eta.

Eskatzen duzuea posible da?

Gasteizko eskoletan erabiltzen ez diren gelak daude. Hainbat ikastetxetan

lekua dago, agian haur txikien beharretara egokitzeko lanak egin beharko lirateke, baina lekua egon badago. Ez dugu eskatzen ehunka eskola egitea.

Ez al da kontraesan bat 0-3 urte bitartekoentzat Eusko Jaurlaritzak egindako planari emandako garrantziarekin 600 haur egotea haurtzaindegirik gabe?

Orain dela aste batzuk Anjeles Iztueta, Hezkuntza sailburuak esan zuen Gasteiz ez dela sare horretako lehentasuna.

Borroka honek guraso talde bat elkartu du eta horri esker indarra egin ahal izan duzue...

Ni pasa den urtean harrituta geratu nintzen, ez nekielako gerta zitekeenik eta aurten konponduta egongo zela pentsatzen nuen. Aurten nire haserrea izugarria izan da, eta haserrea oso zabala dela jabetu naiz. Hala ere, ez da erraza izan elkartzea, ez genekielako nola jarri kontaktuan. Orain asanblada bat sortu dugu eta arduratuta eta haserre gaude oso.



ZIGOR ENBEITA, txapelduna:

"BERTSOLARITZA GASTEIZTIK ARABARA ZABALDU DA"

Duela hamar urte lortu zuen Zigor Enbeitak lehenengo txapela, 1994an bigarre-na, eta aurten hirugarrena. Berpizte kutsua izan du aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketak Zigorrentzat, berak aitortzen duenez, azken urteetan bertsolaritza apur bat alboratuta eduki ondoren buru-belarri sartu delako berriro ere, eta emaitza ezin hobeekin sartu ere. Aurtengo txapelketak inoizko maila altuena izateaz gain, belaunaldi aldaketa erakutsi ere egin du, txapelduna bera izan baita finalean zaharrenetakoa, eta Rikardo Gonzalez de Duranaren belaunaldi-ko inor ez da iritsi.

Nola ikusi duzu zure burua txapelketan zehar?

Ondo. Kanporaketan eta final-aurrean, Bastidan eta Amurrión, lehena geratu nintzen eta finalean ere lehenengoa. Orduan, gaizki ezin ikusi. Gainera gustura kantatu dut, aspaldiko gusturen egia esan, eta igarri da. Urtebete daramat lanean buru-belarri eta nire mailari, nire buruari askoz ere gehiago exijitu diot.

Beraz, lana da bertso onak botatzeko sekretu bakarra?

Bai, besterik ez dago. Pare bat urte egon naiz bertsolaritza erdi utzita oso liatuta mila gauzatan, baina iaz murgildu nintzen berriro honetan eta ondo ateratu da.

Nola ikusi dituzu beste bertsolariak txapelketan zehar?

Maila azken urteetako onena izan da, inoizko onena hobeto

esanda. Asier Otamendi ondo ibili da, baina agian iazko freskotasuna falta izan du; Oihane Perea inoiz baino hobeto; Ruben ere ondo ibili da; Juan Mari Juaristi, txukun; eta Manex pixka bat irregular, kriston bertsoak eta gero kriston akatsak botatzen. Oro har bakoitzak bere maila gainditu duela uste dut nik.

Beraz, denak ondo eta maila ere bai ona?

Puntuetan ere nabaritzen da. Finalera pasatzeko bi puntuko aldea egon da, berdintasun handia, eta zortzigarrena eta bederatzigarrena berdinduta ia. Rikardo bezalako bertsolari bat, beti finalean egon dena, bederatzigarren gelditu da.


Belaunaldi aldaketa ere egon da?

Belaunaldi berri bat datorrela ikusten da. Final-aurrekoetan 15 urteko mutiko bat izan dugu, baita 18 urtekoak ere. Ni neu duela hamar urte bertsolari gazteena nintzen eta aurten finalean zaharrenetakoa izan naiz.

Lehenengo txapela lortu zenuenetik hona, zertan aldatu da bertsolaritza Araban?

Nik uste asko aldatu dela arlo guztietan. Duela hamar urte bertsolaritza Gasteizera mugatzen zen, Gasteizko bertso eskola zegoen eta Amurrión zerbait zegoen; hortik aparte noizbait agertzen zen norbait baina ezer gutxi. Egun bertso eskolak ditugu





Laudion, Amurrion, Aramaion, Legution, Kanpezun, Agurainen,... Beraz, ez da Gasteizkoa bakarrik, Arabakoa baizik. Gasteiztik Arabara atera da, eta hori ikusi da bertsolariak agertu direlako. Horixe izan da saltorik handiena. Beste aldaketa handi bat da Txapelketako finalera irits zintezkeela bertsotan erdi eskas eginda ere; orain finalera heltzeko oso ondo egin behar da, eta horrela ere askotan ez zara iristen. Hortaz, herrialdetasuna lortu dugu eta gainera maila asko hobetu dugu.

Eskolak aipatu dituzu, bertsolariak zarete bultzatzaileak?

Bai, baina ez bakarrik. Egun Araban jende piloa dago eskoletan aritzeko, epaimahaiak osatzeko eta abar. Horrela Arabak gaur egun ez du kanpoko inor ekarri behar txapelketa baterako adibidez.

Orain erronka nagusia Arabatik kanpo plazak egitea al da?

Nik uste dut hurrengo erronka hori dela. Orain arte arabarrok ez genuen kantatzen ezta Araban ere, eta orain Araban kantatzea lortu dugu. Hurrengo helburua izango da Arabatik kanpo ateratzea eta Arabako bertsolariak Euskal Herria osoan ezagutzera ematea.

Eta hori nola lortzen da? Azkenean jendeak Egaña ikusi nahi badu, zer?

Egin behar duguna guk ondo kantatzea da eta gure maila hobetu, eta hori ari gara egiten. Logikoa denez, jendeak bertsolari onak nahi ditu eta guk maila hobetu beharra daukagu. Horretan bagabiltza eta, nik uste, maila majoa dugula.

Jendeak nahi ditu bertsolari onak ala ezagunak?

Normalean onak eta ezagunak. Bertsozale mota bi dago: zale-zalea dena eta bertsoak gustatzen zaizkiona, eta barre egitera edo ondo pasatzera doana. Araban bi motakoak gustukoak ditugu.

Zuk zeuk zenbat saio egin dituzu aurten?

Aurten gauza berezia izan da, zirkuitu bat sortzea lortu dugulako. Bi bertso saio mota egiten ditugu, bat formala, gai-jartzaile eta bost-sei bertsolarirekin, eta, bestelakoak, gai-jartzailerik gabe. Lehenengoetakoak lau zapabost egin ditut eta bigarrenetakoak hamar bat, guztiak Araban. Duela hamar urte, txapeldunak bi egiten zituen gutzira.

Sortutako zirkuitu hori Arabatik kanpo ateratzeko modua ere ba al da?

Nik uste baietz. Azkenean, bertsolaria egiten da bertsotan egiten eta horretarako plazak behar dira, beraz, ez badaude guk sortu beharko ditugu.



Juan eta Juan Karlos, "Patas", Hala Bedi irratiko kideak

20 urte jada! Ene! Nola igarotzen den denbora! Zuetako batzuek gogoa izango dituzue Hala Bediren lehen urratsak, 80. hamarkadan bizi izan zen giro hura... Gaztetxoagoak zaretenok, berriz, Hala Bediren garai sendoena ezagutuko duzue, Gasteizko, Arabako eta Euskal Herriko irratilibreen artean erreferentzia bilakatu baita. Harro egoteko modukoa da 20 urte betetzea eta GEU aldizkariak urtemuga berezi honekin bat egin nahi izan du, horregatik, Juan eta Juan Karlos irratiko lagunekin Hala Bediko historian murgildu gara...

HALA BEDI IRRATIAK 20 URTE... ETA AURRERA BEGIRA

Abuztuaren 3an 20 urte beteko dira Hala Bedi jaio zenetik. Nolakoak izan ziren hastapen horiek? Nola gogoratzen dituzue?

JUAN- Egoera oso bestelakoa zen, hogeitertan gauzak asko aldatu dira eta irratia ez zen gaur egungoa bezalakoa. 'Gasteizko mobida' delakoaren hastapenak izan ziren, mugimendu kulturalak, musikalak, politikoak izugarri areagotu ziren. Gaur egungoak baino askozaz fresko eta dinamikoagoak ziren, eta aldi berean, irratian lan egiteko jende asko zegoen. Tamalez, nahiko ospe txarra genuen, baina irratia saio serioa egin nahi genuen. Aitzitik, ez ginen garai hartako gasteiztar kontserbadoreen gustukoak, eta Hala Bedi irratia nolabaiteko iraultza bat

izan zen. Gasteizko deabruak izan ginela esan daiteke, batzuentzat bederen.

JUAN KARLOS- Nik irratia bera baino, kalean egiten zena gogoratzen dut: jai alternatiboak, manifestazio ateak... Hala Bedi Irratia bera 93 edo 94an ezagutu nuen; zerbait kaxkarra topatzea espero nuen, eta egia esan ez zegoen hain gaizki.

"Gasteizko irratia bat izatetik Arabako irratia bat izatera pasa gara"

Giro horretan nola sortu zen irratia? Zeintzuk ziren helburuak?

JUAN- Gizarte mugimendu desberdinetan, borroka desberdinetan genbiltzan batzuek sortu genuen, ikusten baikenuen geure kontuak ez zirela inon agertzen, komunikabide guztiek muzin egiten zigitela,

baita hedabide abertzaleek ere. Orduan, geure borrokek isla izango zuten komunikabide bat sortzea erabaki genuen: langabetuak, mugimendu antimilitaristakoak, talde antinuklearrak eta bestelako kideak elkartu eta irratia sortu genuen.

Programazioa nolakoa zen? Aldaketa asko ikusten dituzue gaur egungoarekin konparatuta?

JUAN- Desberdina izan bada, baina ez dago horrenbesteko alderik. Kalitatean irabazi dugu, saio batzuk luzeagoak egiten ditugu..., baina gaiak jorratzeko orduan ez da hainbeste aldatu. Noski, garai hartako kutsu punkia galdu dugu, baina gaiak oso bertsuak dira.

JUAN KARLOS- Musika asko jartzen genuen... Lehen ere bi magazin egiten ziren goizetan. Informatiboak ere egiten genituen, gauero, astelehenetik ostegunera; Halaberriak izena zuen.

JUAN- ... eta berri agentzia bat egiten ere saiatu ginen; oso formatu sinplea zuen eta ez zuen hain gaizki funtzionatu. Herri guztietako irratia libre orotatik deitzen zuten, eta erantzungailu batean berriak uzten zituzten. Gero guk idatzi eta banatu egiten

genituen.

Oro har, zeintzuk dira Hala Bedi irratia azken hoge urteotan izan dituen aldaketarik nagusienak?

JUAN- Bada funtsezko garai bat Hala Bediren bizitzan: gizarte mugimendu bat izateari utzi eta komunikabide bat bilakatu ginenean. Modu horretan, beste gizarte mugimenduen isla izaten saiatu gara, profesionaltasunez. Era berean, egonkortasuna bilatu dugu, itxieren dinamika ezin baitzen mantendu.

JUAN KARLOS- Azken hamar urteetan nahiko aldaketa izan dira: irratia barne-lanari egonkortasuna eman zaio, lan esparruak definitu dira, ardurak banatu dira... Azken finean gure apustua izan da Hala Bedi komunikabide bat bilakatzea, denboran egonkortasuna izango duena eta itxierak alde batera uzten dituen. Gasteizko irratia bat izatetik Arabako irratia bat izatera pasa gara.

JUAN- ...bai, eta halako erabaki bat harteak beste beharizan batzuk ere eskatzen ditu. Hala, baliabide tekniko gehiago izatea, lokal handiagoak, jende gehiago lan egiteko, jendearen profesionalizatzeko handiagoa... Prozesu bat da...

JUAN KARLOS- ...Bai, amaierarik ez duen prozesua da.

Irratia sendotzeak inbertsio handiagoak eskatzen

ditu. Zuen kasuan hala da?

JUAN- Bai, irratia handiagoa egin ahala, inbertsio handiagoak behar dira, eta horrek finantziario iturri berriak bilatzea eskatzen ditu. Ildo horretan, bazkideen aldeko apustu sendoa egin dugu, argi gendelako publizitatea eta erakunde laguntzak baztertu behar genituela. Beraz, halabelarriak irratia funtzionamenduen oinarria dira, eta oso pozik gaude lortutako bazkide kopuruarekin.

Zein erronka dituzue epe ertainera begira?

JUAN KARLOS- Bazkide kanpainari amaiera eman nahi genioke aurtan. Bestalde, espero dugu ikasturte honetan estudioen hobekuntza-lanak bukatzea, datorren urteko programazioa egonkortzea, berritzea, web orri dinamikoagoa egitea... Hogeigarren urtemuga ospatzeko asmoa ere badugu... Gauza asko, beraz!

JUAN- Dagoeneko martxan dugu Bilboko Tas-Tas irratiarekin batera egiten dugun saioa, Gasteiz eta Bilbon entzuten da eta oso pozik gaude emaitzarekin. Beste irratiekin ere kolaborazioak egiteko asmoa dugu.

BAGAZINA:

EUSKALDUNON TOPALEKU ARINA

1997. urtean Hala Bedi irratian aspaldi zegoen asmoa bete zen: egunero euskarazko magazin bat egitea. Bi orduko programa euskaraz egiteak dakartzan zailtasunez ia ohartu gabe 1997ko maiatzean lehenengo Bagazina uhinetan jarri zen. Denborarekin, saioa hobetuz joan da eta euskaldunon topaleku izatea erdietsi da. Bagazina-ko egileek

diotenez, aurtengo saioa "txukunagoa, interesgarriagoa eta anitzagoa" da, Euskal Herriko sei lurraldeetako informazio zuzenarekin eta kolaboratzaile sare handiarekin. Bagazina hobetzeaz gainera, euskarazko programak sendotzea eta epe ertain batean gauzez ere magazin bat egitea dira Hala Bediko lagunek euskararen alde egin duten apustua.

halabedi

IRATIA

PROGRAMAZIOA

08:00...	ASTELSHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDIA				
09:00...	NO TE SALVES	EL GURRIGAY	SASI GUZTIEK GAINETIK	JUEVES DE MERCADO	EL QUID DE LA CUESTION	KARRIKAREN KANTOIARI	IN UN RINCONCITO DE PASADISOS				
10:00...						HOLA LATINO AMERICA	MENDIAN GORA MENDIAN BEHERA				
11:00...	SUELTA LA OLLA					GAZTEAK	JUEVES DE MERCADO				
12:00...							BERTXOKO				
13:00...						A DESALAMBRAR	MANETXAK				
14:00...						HIRU KORTXA	ORTZADARRA				
15:00...						KASA KATXAN					
16:00...	BAGAZINA					EL PINTALABIOS	UNA HORA TARDE				
17:00...							HAPPY HOUR				
18:00...	MILA BAIETZ	EL GURRIGAY	GAZTEAK	IN UN RINCONCITO DE PASADISOS	KARRIKAREN KANTOIARI	HIRU KORTXA	MANETXAK				
19:00...	SASI GUZTIEK GAINETIK	A DESALAMBRAR	LA 5ª DIMENSION	BERTXOKO	LA PILA	PLAZA LOS CANASTEROS CALLE LOS LUNARES	NO TE SALVES				
20:00...	LA PILA	EL QUID DE LA CUESTION	KASA KATXAN	ORTZADARRA	FLASHBACK						
21:00...	UNA HORA TARDE										
22:00...											
23:00...											
00:00...	LA TOS DE MEDIANOCHE										
01:00...											
02:00...	BAGAZINA										
03:00...											
04:00...						FLASHBACK					
05:00...											

ZUZENEAN

ERREPIKAPENA

MUSIKA

Lautada 107.4

Sakana 101.9

Mendialdea 101.7

Alara 96.5

Errioxa 107.7



ENEKO LLANOS, MUNDUKO TRIATLOI TXAPELDUNA DISTANTZIA LUZEAN

Ez zuen espero baina horrela izan zen. Eneko Llanos 26 urteko gasteiztarra aurten Ibizan izan den Munduko Triatloi txapelketako irabazlea da. Txirringa, igeriketa eta korrika probetan marka onena erakutsi zuen euskaldunak eta 5 ordu eta 34 segunduko denborarekin atzean utzi zituen gainontzeko lehiakideak.

Hamasei urtetik dabil Eneko, anaia Hektorrekin batera, kirolean suspertuta. Entrenamendurik entrenamendu denbora libre askorik ez duen arren, gasteiztarrak

aisialdia naturarekin harremana daukaten gainontzeko kirolak praktikatzen ematea gustuko du. Hala eta guztiz ere, munduko triatloi txapeldun berriaren esanetan, "niretzat

 **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUJA (ARABA) • ☎ 945 430 073

XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Zientziak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotutak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

 **ERROTA HORTZ KLINIKA**
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna "EL CLARETE"
Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

lana eta afizioa zer den banatzea zaila da". Mementoz Eneko pozik dago bere lanbidea den honetan eta uzteko asmorik ez dauka inondik inora: "Burutik edo fisikoki nekatuta nagoenean utziko dut, baina mementoz luzean jarraitzeko asmoa daukat".

-Nola definituko zenuke zeure burua?

Lasaia, nahiko isila, baita langilea ere...

-Zure kasuan borondatea eta konpromisoa ere gehitu beharko lirateke...

Baita ere, egia esateko kirolean zerbait lortu nahi baduzu, eta batez ere bakarkako kirolean, zure partetik asko jarri beharra daukazu. Ez da taldeko kirolean bezala, non zure kideek laguntzen dizuten; honetan bakarrik zaude eta aurrera egin behar duzu.

-Konpromisoari lotuta zuk Eneko, Egunkariaren "Berria Berri" kanpainan parte hartu zenuen Gasteizen...

Bai, oso gauza atsegina izan zen. Deitu zidaten egunkari berriari babesa eta

laguntza emateko eta baietz esan nuen, hor agertu nintzen...

-Eneko Llanosi buruz hitz egiten ari garela, ezin ahaztu Hektor zure kiroleko lagun eta anaia. Arraroa bera ez ikustea Triatloian?

Bai, hilabeteotan lesionatuta ibili da eta horregatik ezin izan zuen txapelketan parte hartu. Errainezurrean dauka lesioa eta prestatzen ibili arren ez zegoen guztiz osatua. Ibizara joan baino lau aste lehenago gertatu zen dena eta egia esan, hau nahiko lesio txarra da.

-Eta biek parte hartu izan bazenute... lehiakideak?!

Ez, txapelketetan elkarri laguntzen saiatzen gara. Bakoitzak ahal duena egiten du. Baina biok egon izan bagina segur aski nirekin batera amaituko zuen frogara, oso puntuazio ona lortuko zukeen.

-Munduko triatloi txapelketa irabazita, zein izango da Eneko Llanosek bere buruari ezarriko dion hurrengo erronka?

Beno,... lorturiko marka distantzia luzean izan da eta nire espezialitatea distantzia motzak dira, hots, olinpikoak. Beraz, nire oraingo helburua distantzia motzetan horrelako emaitza ona atzera lortzea da.

-Ustekabeaz hartu zenuen lehen postua eskuratzea, ez al zenuen espero?

Distantzia honetan egiten nuen lehenengo proba zen eta ez nekien nola moldatuko nintzen. Banekien ondo nengoela, dena den, ez nekien ze emaitza lortuko nuen. Izugarritzko poza sentitu nuen, ...oso zaila da adieraztea une horretan sentitzen duzun egundoko poza eta emozioa...

-Poztasuna bai, baina ez al da izango erronka handia hemendik aurrera marka hau mantendu behar izatea?


Bai, ez nire aldetik baizik eta gehiago besteen aldetik. Nik argi daukat zein den nire maila eta non ibil naitekeen, baina jendeak gehiago eskatzen du. Gerta daiteke niretzat postu ona dena jendearentzat ez izatea, baina kezka hori baldin badaukat ere kontziente naiz oraingoan lorturiko marka errepikatzea oso zaila izango dela.

-Txapelketan ari zinela zerbaiten beldur bai?

Ez, ni nire lasterketa egitera nindoan. Nire kezka handiena ni neu nintzen; kontzentrazioa mantentzea, ondo elikatzea eta ondo edatea. Eta dena oso ondo atera zen, borobil.

-Orain munduko triatloi txapelduna zarela, gogora ekartzen al dituzu zure hastapenak?

Podiumean nagoenean ez, oso zaila da azaltzea bertan sentitzen duzuna-eta, baina etxera bueltatzean berriro entrenatzen hasten zarenean..., orduan pentsatzen duzu hainbeste urte pasa eta gero gustura gelditzen zarela. Esfortzuak zerbaitetarako balio izan du.





adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisan
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



eguzkitarako nobedade
novedade

eguzkitarako nobedade
guztiak MendiaOptikan,
... zatoz ikustera

**ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a**

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Pza. Virgen Blanca
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

 Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailez



leire lpz de aberasturi
argazkia: edorta sanz

Mikel Vicente, gizon lasaia

Pazientzia handia duela aitortzen du Mikel Vicente, 32 urteko gasteiztarak; bestetik, musika lasaia laketa zaiola dio, baina aldi berean, jenioa ere baduela eta rocka ere atsegin duela aitortzen du. Agian San Martin fotokopiagintzan lanean daraman hamar urteetan hartu du egonarria, jendearekin tratatzeko askotan behar izaten baitute salmahaiaren atzean daudenek. Azkenik, bera bezalakoak direnekin erabat bateragaitza dela dio, lanetik kanpo behinik behin.



Duzun bertuterik handiena?
Pazientzia.

Jeniorik ba al duzu?
Bai.

GEU aldizkaria eta GEU elkartearen berririk bai?
Bai.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?
Telebistako programa batzuek.

Telebistako saio bat?
Bat ez, bi: Date el bote eta Agur Ben-hur. Lehiaketak gogoko ditut.

Film on bat?
Ez dakit ona den, baina behin baino gehiagotan ikusi dut eta gustatu zait: "Aitaren izenean".

Liburu bat?
"Los pilares de la tierra" irakurtzen ari naiz eta momentuz ondo dago.

Zein musika atsegin duzu?
Rocka eta musika lasaia.

Jaki goxoren bat?
Arroza.

Batere gustatzen ez zaizuna?
Dilistak.

Azken oporrak non eta zertarako?
Segovia eta Avila inguruan ibili ginen, lauzpabost egun lasai egoteko. Oso inguru polita da.

Denbora libre gehiago izanez gero, zer egingo zenuke?
Ettxeko gauzak hobeto eraman eta kirol gehiago egitea, txirrindularitza gustatzen baitzait.

Gasteizek duen onena?
Hiri lasaia dela eta jendea.

Eta txarreana?
Etxebizitzaren kontua eta gero eta hiri burgesagoa dela.

Gasteizko lekurik politena?
Alde Zaharra orokorrean.

Mementoko kezkarik handiena?
Oporrak noiz heldu zain nago.

Gustuko koloreren bat?
Urdina.

"aramaioko euskara" liburua

TXIPI ORMAETXEA: "Aramaioko euskara zerbait bada, bizkaiera da"



Aramaioko euskaldun edadetuenek egiten duten hizkera aztertu du Txipi Ormaetxea irakasleak Aramaioko Euskara liburuan. 65-70 urtetik gorako zenbait hiztun elkarrizketatu eta ondoren jasotako materiala aztertu du, honako atalak landuz: fonologia, izen morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia eta lexikoa. Egindako lanean gehiago sakontzeko Txipirekin mintzatu gara, eta berak liburuaren zertzelada batzuk eman dizkigu.



- Nolakoa izan da Aramaioko Euskara liburuaren egiteko prozesua? Nola otu zitzaizun bertoko euskara aztertzea?

Aramaioko euskara aztertzea aspaldiko ametsa nuen, eta duela zazpi urte hasi nintzen grabaketak egiten. Aramaioko Udalean bazegoen asmoa bertako toponimia, etnografia, euskara eta abar lantzeko, eta ni gai horretan banenbilela jakinda, 2000ko udan dirulaguntza bat eman zidaten eta hor hasi zen liburuaren historia. 2001eko udaberrian nik lana egina nuen, liburu hau baino potoloagoa zen,

baina haien asmoa ez zen liburu sendo bat egitea, eta ondorioz, laburtzea eskatu zidaten. Hala egin eta aurten entregatu dut lana. Finantziarioarekin gora-behera batzuk egon ziren, eta azkenean Arabako Diputazioak lagunduta atera da.

- Irakurleak zer aurkituko du liburu honetan?

Bertako euskararen azterketa bat hizkuntzaren ikuspuntutik. Hizkuntzaren fonologia (hotsak), deklinabidea, izen morfologia, aditz morfologia, sintaxia eta lexikoa dira alor nagusiak. Hau ez da nobela bat, ez da edonork irakurtzeko kontu bat..., baina interes apur bat duenarentzat badu alde on bat: batez ere grabaketa libreetan oinarrituta dagoela. Nik bakarrik edadekoekin egin dut lan, alegia, betiko, lehengo euskara erabiltzen dutenekin. Grabaketa libreetan oinarritu dut lana, baina inkestetara ere jo dut. Eta arestian aipatu alorren azterketa ere egin dut, baina ez dago dena landua. Jakina, guztia trinkoki landu nahi izanez

gero, askoz liburu mardulagoa izango litzateke:

- Aramaioko euskararen azterketa egin ostean, zein ondorio atera dituzu? Zein berezitasun ditu bertoko euskarak?

Aramaio Araban dagoen arren, justu Bizkaia eta Gipuzkoako mugan dago. Historikoki Bizkaiarekin ditu loturak, eta gerora Erdi Aroan Arabara pasa bazen ere, hango euskara bizkaiera da, zerbait izatekotan. Gainera, inguruan dituen Gipuzkoako herrietan ere bizkaieraz hitz egiten dute: hala, Arrasaten, Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan... Bestalde, Aramaioko euskarak zenbait berezitasun erakusten ditu, baina gehienak inguruko herrietan ere ezagunak dira. Hori bai, Otxandiko euskara eta Aramaiokoa ez dira berberak; Oleta Aramaioko auzo bat da, baina Oletako euskara ez da Aramaiokoa bezalakoa, desberdintasunak daude. Askotan orografiak berak egiten du bereizketa.

- Liburuaren azken atalean elkarriketa baten transkripzioa hiru eratan jaso duzu.

Bai, bertako euskararen transkripzioa da. Helburua labur egitea zenez, nahiz eta nik grabazio asko eginak nituen, testu bakarra sartu dut: hango baserritar batekin izandako elkarriketa bat da, eta hiru modutara eman dut testua. Alde batetik, idazkera ortografikoa dago, hau da, nik entzuten dudana transkribatu egin dut, entzuten den bezala jaso dut. Bigarren zatian Aramaioko euskara idatzirako proposamena egiten dut, eta hirugarren zatian euskara batuan sartu dut testua.

- Lexikoari ere tarte eman diozu, eta Aramaion erabiltzen diren izen batzuk bildu dituzu.

Jende askok atal honi begiratzen dio. Hala ere, lexikoa ez da exhaustiboa inolaz ere, berezi samarrak direnak bildu ditut, aukeraketa bat egin dut. Esaterako, bizkaieran "gitxi" esaten dute askok, eta Aramaion, ordea, "gutxi" esaten da. Halako adibideak bildu ditut.



- Zein da Aramaioko Euskara liburuaren helburua?

Pozik nengoke liburu honi begirada bat botatzen dionak balekusa Aramaioko euskara nolakoa den, zein doinu duen... Esaldiak

irakurrita sumatzen bada Aramaioko hizkeraren kolorea zein den, ni pozik geratzen naiz. Hori bai, azpimarratu behar da lan hau ez dagoela bukatuta, eta oraindik asko hobe daitekeela.



UDA PARTEAN ERE EUSKARAZ BIZIZ

Uda, beroa, oporrak eta aisialdia, guztiak bat datoz hurrengo hilabeteetan. Zorionez beti horrela ez bada ere, gerta daiteke ikasturtea amaitu eta euskalduntze prozesuan ari direnek, guraso erdaldunak dituzten haurrek eta oro har ikasturtean zehar euskara praktikatzar aritu direnek sasoi honetan euskararekin urtean barrena izandako harreman estua eta aurrerapena bertan behera uztea. Hau zure kasua baldin bada, lasai, udan ere euskaraz murgiltzeko parada desberdinak dituzu-eta, hala nola, irakurketaren bitartez, euskaldun jendearekin eginiko bidaien bidez edota txikienen kasuan ere, udako koaderno dibertigarriak errepasatuz; ahaztu barik jakina euskaltegiako udako eskaintza, ikastaro trinkoak eta barnetegiak.

BAGAREn UDAKO BIDAIA, AUSTRIARA

Bagare Euskal Tokiak, azken hiru urteetan egin bezala, aurtengo udan ere oporretarako bidaia berezia prestatu du euskaldun guztiontzat. Eslovenian eta Kroazian, Polonian eta Txekian, eta ia, Ingalaterran eta Galesen egon ostean, aurtengo helmuga Austria dute bidaia honetan interesaturik dagoen euskaldun orok. Bertako bizilagunekin harremanak egin, lagun berriak egin, bertako egoera sozio-politikoaz ezagutu, turismoa egin, leku berriak ezagutu, eta gainera hau dena euskaraz bizi nahi baduzu, Bagare Euskal Tokiak luzatzen dizun gonbiteari adi eta jarraitu irakurtzen. Informazio gehiago nahi izanez gero, jakinarazi ezazu Bagareko telefonora (945251084) deituta eta erantzungailuan zure telefono zenbakia utziz. Deituko dizute!

HELBURUA

Oporrak pasatzeko "bidaia antolatuaren" formula gori-gorian dagoenez, euskaraz egiteko aukera erakargarria da. Euskal Herrian arlo guztietan euskaraz bizitzea ez da samurra eta horretara dator bidaiatzeko talde euskaldunak osatzearan Bagare-ren proposamena, bai euskaraz bizi nahi duenarentzat,

bai mintzapraktika egin nahi duen euskara ikaslearentzat. Hau guztia oporretan, ongi pasatzen eta beste kulturak ezagutzeko aukeraz. Bidaia antolatu diituztenean beti izan du Bagarek bertako jendea ezagutzeko nahia, eta ia Galesen (Cymru, beraien hizkeran) bertako "Kontseilukoekin" egon ziren (Wales Language Board), Londresen eta Galesen bizi diren euskaldunekin egoteaz gain.

AURTENGO PROPOSAMENA: AUSTRIA

Gasteizko jaiak bukatu eta hurrengo egunean (abuztuaren 11n) abiatuko dira "bisitariak". Printzipioz bi aste bidaia da (26a arte). Autobus bat eramateko asmoa dago, eta beti bezala autobusean eta kanpinetan egingo da lo. Janariari dagokionez, bakoitzak berea antolatzen du, baina egun batzuk lehenago interesa daukatenak "taldetxoak" osatzeko biltzen dira, horrela bakarrik joanez gero aurretik jendea ezagutu ahal izateko.

EGITARAUA: AUSTRIA ETA BAVARIA

Asko dira bisitatuko diren tokiak, besteak beste, honakoak: Cremona, Innsbruck, Salzburgo, Munich, Dachau, Augsburg, eta Freiburg. Hortaz, honako lekuak mapan bainoago ezagutu nahi badituzu, ez itxaron gehiago eta deitu Bagarera lehenbailehen toki gorde diezazuten.



ARGIA ASTEKARIAREN SOINEKO BERRIA

Maiatzaren 13an ARGIA astekaria guztiz eraberriturik kaleratu zen.

Egitura, itxura, eduki, atal eta sinadura berriei kaleratu gainera.

Xabier Letona zuzendariak dioenez "euskal prentsaren irakurlea irakurle exijentea da, kalitatea bereziki eskatzen duena. Guk kalitate gose hori ase nahi dugu berrikuntza honekin, azal eta mami ukitzen duen berriketa honekin".

ARGIAk informazioa, analisia eta entretenimendua eskaini nahi ditu. ARGIAk seriotasunez, konpromisoaz eta zabaltasunez heldu nahi dio aktualitateari eta horretarako biltzen ditu aldizkarian pentsamolde desberdineko sinadurak eta kolaboratzaileak.

Edukiei dagokienez, kultura eta aisia nabarmen bereizi dira astekariaren erdian. Asteko gaia eta asteko pertsonajea aldizkariaren hasierara eraman dituzte, jarraipen handieneko sailak direlako, iritzi saila sortu da eta aktualitatearen jarraipen zehatza egingo duen Termometroa saila ere bai.

Kalitatea, eta goi mailako gai eta sinadurak omen dira ARGIAren irakurleak etengabe eskatzen duena, eta nahi hori asetzea izan da astekaria egiten dutenen helburua. "Gure buruan gauza asko ditugu jira-biran, baina bi nagusiki, aktualitatea eta irakurlea. Hori da berrikuntza honekin eskaini nahi duguna", esan digu Xabier Letonak.

Eraberritze honekin batera, prentsa idatziak ezarritako jokamolde batzuk aldatzen eta urteetako jardueran pilatzen joan diren kortse guztiak askatzen saiatu dira. Ez diote egitura klasikoari segida eman nahi izan. Zentzu honetan, ARGIA berri hau ez da leku berean kokatzen diren sail finkoen multzo bat.

"Azkena" deritzon orrialdea eta besteren bat mantendu diren arren, informazioa ez da jada "politika", "nazioarte" edota "kultura" bezalako ataletan banatzen. Mamia astero lantzea, asmatzea, egituratzea, mimatzea eta gaietan orekatzea eskatzen duen astekaria egitea izan da apustua, astero ARGIA berri bat deskubritzea, asteroko sorpresa eskaintzea.

Hitz bitan, zurruntasuna kenduz, aldizkari **freskoagoa, bat-batekoagoa, espontaneoagoa** plazaratzea da ARGIAkoen asmoa.

Geu aldizkariak bestalde, eskaini zien duela hilabete bere irakurleei ARGIAren 3 ale doan eskatzeko aukera. Askok izan dira aukera honetaz baliatu direnak eta baita harpidetu direnak ere. Oraindik eskatu ez eta astekaria ezagutu nahi duzuenok 3 ale doan jasotzeko aukera duzue oraindik eskaera harpide@argia.com helbidera bidalita edo 943-371545 zenbakira deituta.



IZARGIREN UDAKO KOADERNOAK: "KALKULUA" BILDUMA

Iaz "Buruketak" izeneko udako koadernoek erantzun bikaina jaso ondoren, aurtengo udarako ere Izargi ekimenaren eskutik, Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako koaderno berriak argitaratu dira dagoeneko. Umeak euskalduntzeko prozesuan ahalegina eginez, Izargik haurrentzako euskarazko udako materialean dagoen hutsunea eta gabezia bete nahi du. Helburu zehatz honekin, hortaz, **"Batuketak I", "Kenketak I", "Biderketak I" eta "Zatiketak I"**, metodo erraza eta eroso batean sorturiko "Kalkulua" koadernoak, kalean daude jada. Bigarren mailako gainontzeko laurak datorren ikasturtean argitaratuko dira, ikasturte berriaren hasierarekin batera.

Izargiren hausnarketei so eginez, "nahiz eta euskaraz ikasi, badago joera gero etxean, eta batez ere uda garaian, erdarara jotzeko. Hortaz, proiektu honetan irakasleak inplikatzear gain gurasoak ere inplikatuta nahi ditugu". Hori dela eta, gurasoek umeei etxekolanak egiten laguntzen dieten testuinguru horren garrantzia abiapuntu hartuta, Izargin aritzen diren arduradunek gurasoentzat ere erosoak suerta daitezkeen koadernoak egin dituzte. Argitaletxe handiek horrelako euskarazko materiala kaleratu badute ere, Izargik metodoarekin asmatu du: "desberdintasuna da eurek erdarako materialetik itzuli dutela eta gurea, aldiz, sortzen den horretan datza; oinarrian nabaria da". Umeak koadernoak bukatzen duenean azken orrian "diplomatoa" jasoko du. "Honekin bere lana arindu eta umea pozago geratuko da".

publizitatea

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko
ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago pin-
txorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale ~~36€~~
urtean 30€



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK: _____

IZENA: _____

HELBIDEA: _____ P.K: _____

HERRIA: _____ LURRALDEA: _____

TFNOA: _____ SORTEGUNA: _____

POSTA E: _____

Ordainketa mota:
☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra: _____

Ipar E.H. _____

Ipar E.H. _____

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83
E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

josune velez de mendizabal eta edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz / artxibo



Ene, zenbat gauza ikas daitezkeen besteen testigantzak entzunez! Gasteizen gutxi ligatzen dela? Antza denez, hementxe idazten dutenek oraindik ez dakite zer-nolako mugimendu berezia dagoen hirian. Neska&mutila, mutila&neska, neska&neska, mutila&mutila, baldin eta norberak nor desiratzen duen Adinarekin batera urteak baino askoz ere gauza gehiago bereganatzen dira, besteak beste, norberak bere estrategiak hobetzea. Hau dela eta, honako burutazioa: akaso, hobeto zaharra izatea gaztea izan aurretik? Garaiz gabiltza ikuspuntua, jarrera eta txipa aldatzeko. Zapore gazia ala goxoa nahiago?

LIGATZEKO MANERAK

TXORIBURUAK?? (15-19 urte bitartekoak)

Hormonak bor-bor dituzte gaztetxo hauek, (baita hain gazteak ez direnek ere) eta ligatzeko kontuetan lehen pausoak ematen hasten dira. 15-17 urte bitartean izaten dira, oro har, lehen bikote harremanak eta esperientziak. Erikak 16 urte ditu eta ikastolako mutil bat du gustuko; koadrilarekin irteten denean elkarrekin egoten dira. Berarentzat ligatzea hori da, beste batzuentzat, berriz, ligatzea gehiago da, eta sexua ere aipatzen dute.

vitales
BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ


Surtu
Zure arropa eta ainetakoa!
www.surtuenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

BARRA
TABERNA
Bere dituzte, astoanetik ostirak.
JANTOKI BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 68 33

Bacalao Giraldo


- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

erreportajea

LILIAK ETA EULIAK

(20-25 eta 26-30 urte bitartekoak)

Gauzak aldatuz doazen arren, harreman heterosexualetan gizonezkoak omen dira lehen pausoa ematen dutenak. Harreman homosexualetan, ausartenak ematen omen du aurreneko urratsa. "Begiradarekin ligatzen da", uste du Alaznek. "Orokorrean gutxi ligatzen dugu", diosku Unaik. Asko ala gutxi, kontua da adin tarte honetan sexua ezinbestekoa dela harremanetan (oro har ari gara) eta nahiko ohikoak direla gau bateko 'rollitoak'.

Harreman heterosexualetan kasuan, mutil askoren ustea da emakumezkoak direla egoera bideratzen dutenak. Hau da, euren esku egoten dela azkenean norbaitekin joatea ala ez. "Neskak nahi badu, oso arraroa da mutilak ezezkua ematea", dio Unaik.

Mutilek beti nahi al dute? Mirenen aburuz, "bai, ipurdia ikusita atzetik izaten dituzu, euliak bezala".

Eta hartu-eman homoetan, zer? Erraz izaten al dute ligatzearena? Xantik dioskunez, "ez da samurra, batik bat giroko tabernetatik ibiltzen ez bazara; kasu horretan ausarta izan behar duzu, eta tanteatu beharra dago... eta batzuetan espero ez duzunarekin ere egoten zara".

ESTRATEGIA MAMITUZ (31/37):

"Ez dago estrategia zehatzik, zer eta nola egin norberaren esku dago, baita kalitatea eta kantitatea ere. Dena dela, egia da adin honekin gauzak askoz garbiago daukazula eta eman beharreko pausok tinkotasun eta garbitasun handiagoz ematen dituzula, edota eman ditzakezula behintzat. Gainera, beste modu batez hartzen dituzu gauzak eta mundua ez zaizu gainera erortzen zerbait txarto ateraz gero (hurrengo hobeto aterako da eta kitto!)", aipatzen dute Jonek eta Itziarrek.

Itxasoren ustetan, berak izandako esperientzian oinarrituta, honako hau definitzen du ligatzeko estrategia bezala: "Hasieran, une egokietan agertzea, ez gehiago ez gutxiago, eta zertzeladak uztea; tartean, zure baliabideekin jolastu: hitza, mugimendua, begirada, entzuteko gaitasuna, bazilea, alaitasuna..., dena bere neurrian; amaitzeko, zure nahia eta desioari eutsita harira joan eta zuzena izan, bueltarik

eman gabe. Eta horrela amaiera arrakastatsua izan daiteke edo amaiera arrakastatsutik gertu egon zaitezke (pertsonekin horrekin 'enroilatze' asmoa baduzu, jakina): hots, egun horretan bertan zure gogoko den horrekin enroilatuko zarela, eta egun horretan ez bada, bai bera topatuko duzun beste batean".

BIKOTEDUNA ETA EGONKORRA?

(38-45 adin tartekoak)

• "Nire adinekoak beren bikotearekin irteten dira eta lagunekin egoten garenean mundua konpontzen saiatzen gara, ez gaude ligatzen pentsatzen. Dena dela, denetarik dago, eta pertsonen arabera da. Ligatzeaz gehien hitz egiten dutenak bananduak daudenak dira..."

• "...bikotea dute eta tira!, nahiko 'formalak' dira. Badira apartekoak, hots, 15 urte balituzte bezala ikaragarritzko fantasmadak botatzen dituztenak (...), putetxeetara doazenak ere badira (...). Beste talde tipiko bat dibortziatuak dira; batzuk taberna zehatz batzuetara joaten dira, non bezero guztiak egoera bereberek dauden, eta diotenez *bi elementu edo gehiagoko konbinazioak, bariozioak eta permutazioak* ematen dira bertan", dio Aitorrek.

HELDUTASUNAREN JAKINTZA (45/59)

Erosketak egiten, hitzaldi edo erakusketa batean, kontzertuetan edota kaletik bertan ligatu daiteke, adin tarte honetako emakumeen esanetan, baita taberna, lan bileretan, lanean bertan, bidaietan eta ateraz gero, gau-tokietan ere; eta gau baterako, modako tokietan, euren aburuz: "Nahi izanez gero aukera dago. Hori bai, emakumeok ematen dugu gehienetan lehenengo pausoa, erraztasun handiagoa baitauek elkarriketari hasiera emateko, baita gero sortu daitekeenerako ere; ez dugu inoren

eta ezeren aurrean garaitu behar", dio dibortziatua dagoen Edurnek, "gogoia izanez gero (gero eta gutxiago edo batere ez...) nahi dugun guztia, nahi dugunarekin eta nahi dugunean ligatu dezakegu". Blanca alarguna da eta kontatzen digunez, "adin honekin ezezagunekin bainoago lagunekin ligatzen duzu". Maite ezkontuta dago eta berak egiten duen irakurketaren





LIZARRALDE SOINYA
TXALAPARTA, S.L.
SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA

945 226 977
GASTEIZ



bar · restaurante
albeniz

Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

arabera, baita dibortziatuak ere, "urteekin ligatzeko aukera murrizten ez den arren gogoia, aldiz, bai"; "akaso bila ez zoazelako liga dezakezu gehiago", eranstean du dibortziatuak, "eta ez da gehiago ligatzen harreman bat noizbehinkakoa izan daitekeela ulertzea zaila delako; gizonezkoek laster zerbait gehiago nahi dute, bestela, 'mari-zirtzil' bat zara; adin honetan ez da erraza une zehatz bat partekatzea polit ikusten duen norbait topatzea".

ANTZINAKO TANKERAN (60 urtetik gorakoak)

"Benidorm" -erantzuten digu zalantzarik gabe Pilarrek-. "Mahaian eserita bakarrik, bikote gabe, ikusten zaituztenean orduan hasten dira gerturatzen lehenengo bat eta gero besteak: 'Dantzatzan duzu?', galdetzen dute eta hortik aurrera nahi izanez gero oporretan zauden denboraldirako konpainia daukazu".

Horrelako leku turistiko batean ligatzea erraza dela ziurtatzen du Eloik. "Bikotearekin bazoaz ez dizute ezer esango, baina alargun asko doaz hara eta lehenago edo beranduago 'lagunak' egiten dituzte". 78 urteko gizon honek dioenez, emakumezkoek gizonezkoek duten gako bera erabiltzen dute kasu honetan, dantza eskatzea, alegia.

NESKEK ERRAZAGO ETA MUTILAK ZUZENAGOAK?

Samurragoa ei dute neskek ligatzea. Topikoa izan daiteke, bai, baina egia puntu bat ere baduela dirudi. Badute horretarako huts egiten ez duten tresnak: sentsualitate, zolitasuna... Noski, norberaren izaeraren arabera dago halako jokotxoetan hobeto ala okerrago sartzea, baina begirada, irribarra, eta akaso, modu iradokitzaile batean dantzatzea tresna ezin hobeak dira neska batek begiz jotako pertsona baten arreta bereganatzeko. Edo agian ez.

Salbuespenak salbuespen, mutilak zuzenagoak omen dira norbaitekin amodio-konturen bat nahi badute. Berdin dio taberna giroan izan, autobus geltoki batean ala supermerkatuko ilaran, mutilak gai dira zuri begiratzen geratu eta zerbait esateko. Horrek ez du esan nahi sentsualitate, probokazio edota begirada interesgarriak ez dutenik, baina agian tresna horiek denborarekin erakusten ditu. Edo agian ez.

Dena dela, desberdinak garen heinean ligatzeko orduan ere desberdintasunak daude emakumezko eta gizonezkoen artean, noski, bizitza ikusteko eta sentitzeko modua ere oro har diferentea delako, alabaina, asko egiten du pertsonak berak, emakumezkoa nahiz gizonezkoa izan. Dena dela, gauzak aldatu badira ere, zelan ikusten da oraindik ere neska bat asteburu batean eta hurrengoan ere gaueko 'rollitoaren' bila joatea? Horra hor hausnarketarako itauna!

ONDORIORIK ONDORIO

Hortaz, zeri deritza ligatzea? Ligoak gara naturaz edo egiten gara? Hotzak, beroak edo zolitu beharrekoak?...

...Guk atera ondorioen arabera, ligatzea kontzeptu zabala da, adinarekin eta zure memento pertsonalaren arabera aldatzen dena. Norberak jartzen ditu mugak eta helburuak. Eta ligatzeko, noski, gogoia edukitzea ezinbestekoa da. Gauza bat da ligatzea eta beste bat 'enroilatzea': ligatu daiteke enroilatzeko asmorik gabe (ondo pasatu eta bazilatzeko asmoaz, besterik ez; jokotxo horretan sartzeko gogoia daukazunean. Zergatik ez?), enroilatzeko asmoz, edo enroilatu zaitezke ligatu gabe. Aukera asko daude.

Ligatzeko kontzeptua adinarekin aldatzen da, antza: gazteago zarenean ligatze horretan akaso engantxe gehiago duzu, eta askoz zalantza gehiago. "Ohera" iristeko buelta gehiago ematen dizkiozu buruari, ondoren ere ezbaiak daukazazu, eta sarri gainera zuk espero bezala ateratzen ez bada burua jaten duzu (hori adin gehiagorekin gertatzen bada prestatuago zaudenez sentsazio hobe geratzen zaizu edota ez diozu hainbesteko garrantzia ematen). Adinarekin garbi dago baliabide gehiago eta gaitasun handiagoa daukazula akaso naturaltasun eta freskotasun handiagoaz ligatu edota enroilatzeko, zure buruarekin segurtasun handiagoa duzulako, eta une zehatz bateko 'rolloak' une zehatz horretarako izan direla ere zalantzarik ez duzu.

Bakarrik ligatu dezakete bikote gabe daudenek? Ba ez, bikotea baduzu ere ligatu dezakezu; hor kontuan hartu behar den gauza bakarra dira zure kontzeptua eta xedea. Bikotea izateak ez du esan nahi ligatze-bazile hori zure bizitzatik betiko desagertarazi edo baztertu behar duzunik (zelako tristura eta itxikeria bestela!). Haatik, bikotea baduzu, interesgarri eta erakargarriena, honakoa: zure bikotea behin eta berriro seduzitzea, sedukzioaren jokoa mantentzea, hots, zure bikotearekin "ligatzea".

"Nik askotan pentsatu dut oro har, bai emakumezkoen bai gizonezkoen aldetik, imajinazio falta dagoela gai honetan, eta tipiko eta topikoetatik urruntzeko jauzia emateko tenorea badela behingoz!", zioskun elkarriketatuta emakumezkoetako batek.

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourrier, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 28 19 91
01004

Dalve
argitaratzeak
maketazioa
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net
diseinua

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



Sonia Ruiz de Arkaute
bitxigintza-artista gas-
teiztarraren diseinua.



BITXIGINTZA GARAIKIDEKO SINPOSIUM NAZIOARTEKOA GASTEIZEN

Gasteizko Gemologia Euskal Elkartek Estatu espainolean inoiz egin den lehendabiziko bitxigintza nazioarteko sinposiuma antolatu zuen ekainean. Gasteiz izan da Austria, Portugal, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Estatu frantsesa, Alemania, AEB eta Bartzelonako bitxigintza bildu dituen 'Bitxigintza garaikideko I. Travelling Sinposiuma' ren gunea, bitxiez sortu arte modernoaren topagunea, alegia.

Arte honetan hamabi herritatik etorritako adituen artean adituenak izan dira ekainaren 21etik 30era antolaturiko hitzaldi eta lantegietan. Izenik izen, Txekiar Errepublikatik Turnov Museoko zuzendari Miroslav Cogan da aipagarria; izan ere, Sonia Ruiz de Arkaute, Gasteizko Gemologia Elkarteko Bitxigintza eskolako koordinatzailea duela bi urte Txekian egin zen antzeko ekitaldira gonbidatu zuen gizona da hau: "Orduan ezinezkoa izan zitzaidan eta proposatu nion Gasteizen egitea", dio Soniak. Ideiak aurrera egin du eta Soniak kudeatu egitasmoak erantzun ezin hobe jaso du, Arabako Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Vital Kutxak emandako dirulaguntzez gain, Gasteizko ekintza Bartzelonako "Diseinuaren Urtea 2003" egitarauaren barnean baitago.

Hitzaldiak eta lantegiak atzean geratu badira ere, bitxigintzaren isla utzi du sinposium honek Gasteizko Dendarabako erakustaretoan. "Egiten ditugun lanak ez dira bitxidendetan ikusten ohituta gaudenak, baizik eta diseinu berriak, eskulturak bailiran, material berriekin", azaltzen du Soniak. **Uztailaren 8ra bitartean bi dira Vital Kutxaren aretoan ikus daitezkeen erakusketak:** lehenengo erakusketan sinposium honetan esku hartu duten artisen diseinuak daude erakusgai, euren artean, Sonia Ruiz de Arkaute gasteiztarrarenak; bigarren erakusketak Miroslav Coganen elkarlanari esker, Turnov Museoko bitxigintza garaikideko hainbat lan biltzen ditu.

Azkenik, Donostiako Kursaalera Istra galerian beste erakusketa bat egongo da aldi berean, sinposiumeko partehartzaileen lanekin, uztailaren 23ra bitartera.

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



**EAJ
PNV**

Hitza, bihotzaren giltza:

**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

IRVSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

**ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak**

ITYRRIETA



Sagardotegia

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

UZTAILA

Adi:

•Gasteizko XXVII. Jazzaldiari, (13tik 19ra)

•Hala Bedi Irratiaren 20. Urteurrenari

4

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN (Gazte topaketak eta Festibala)-2003.

ARROSAn. Uztailaren 4tik 6ra. Antolatzaileak: Irulegiko Irratia, Piztu. Informazioa: www.festival-ehz.com - Tel.: 0559257303 / 0559592075

4ko kontzertuak: Okabe (funk-EH), Skunk (reaggekor-EH), Zebda (zebda-Toulouse), Hamlet (metal-Madril), International Karate Punks: (DJ Prest, DJ23, DJ8 - jungle drum 'bass break (EH-Katalunia),...



5

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN-2003. ARROSAn.

5eko kontzertuak: Golgoth 13 (elektro bontenpi-EH), Sagarroi (skareaggekor-EH), Marakooja (funk-EH), Sorkun (rock-EH), Skatalites (reagge-Jamaika), Punish yourself (PunkIndusTechnoDanceCore-Toulouse),...

6

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN-2003. ARROSAn.

6ko kontzertuak: Unama (folk-EH), I Muvrini (folk-Corse), Oskorri (folk-EH), Banda Basotti (ska-Italia),...

12

Arabako Natura Institutua (Ani).

Uztailak 12. Urlehorrarak. Behaketan eta ezagueran hasteko ikastaroa. Gaueko irteera. Informazioa: 945246606.

13

GRINA ETA MUGIMENDUA erakusketak. Bideo eta Argazkigintzako 2. mailako ikasleen muntaketa (Gasteizko Arte eta Lanbide eskola). Uztailaren 13ra arte.

20

"HOMO" ERAKUSKETA. Jonan Goenaga eta Juanan Urkola. Gay-unibertsoan ironikoki aztertzen duen erakusketa. Uztailaren 20ra arte.

BESTE

CAJA VITAL KUTXA APOTA IKUSENTZUNEZKO TAILERRA. 1. SARIA

Idazlanak (laburmetraia-gidoiak) jasotzeko epemuga: irailak 15

Informazioa: APOTA Ikusentzunezko Tailerra (Araiaiko Andra Mari zinema barruko elkarte kulturala)-01250-Araia.

JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA

Ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira.

Lanak aurkezteko epea: 2003ko irailaren 10etik 26ra arte.

Oinarriak, informazioa eta eskaera-orri ereduak webgunean: www.irun.org Informazio gehiago: 943649412.

JUAN S. MARTIN BEKA-2003. Botanika, mendizaletasuna

Antolatzailea: Eibarko Udala, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzaz.

Informazioa: 943707153 / euskera.ei@eibar.net

Helburua: euskarazko ikerketa sustatzea eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko.

Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea: irailaren 9tik urriaren 10era.

3. UMORE GRAFIKOKO NAZIOARTEKO LEHIAKETA, "Tecnologia berriak" izenpean. Epea: 2003ko azaroak 3.

Lanak eta datuak bidaltzeko: hermesbarakaldo@barakaldo.org. Informazioa: Barakaldoko Udala.

XXI. TENE MUJKA NARRAZIO LABURREN LITERATUR SARIA.

Antolatzailea: Debako Udala.

Lanak aurkezteko epea: Azaroak 28

Informazioa: Debako Udala.


AUGUSTIN ZUBIKARAI III. SARIA

Nobela laburrentzat.


Antolatzaileak: Ondarroako Udala eta Elkar argitaletxea.

Euskal kultura aberasteko eta idazleen lana bultzatzeko Epea: 2003ko abenduaren 1a.

Informazioa: Ondarroako Udala-Euskara Zerbitzua.



AUGUSTIN ZUBIKARAI III. SARIA
Nobela laburrentzat 2003



LABURPENA

7. atalaren laburpena: "Nire maleta bikia". Gerardo Markuleta.

Une horretan Asun komunera doa. Joni Marga zaintzeko eskatzen dio. Hortik gutxira Margak "haragi eraso garbiari" ekingo dio, bere eskua Jonen hanka tartera eramanez eta mugituz. Jon aho bete hortz dago bizi izaten ari den guztiarekin, eta ezin sinets dezake ordura arte gertaturiko ezer. Nolanahi ere, zerbaiten susmoa dauka: bikien arteko gauza eta komunikazio ezkutua... "Badira sekretuak bihotzak ezpainei ezin esan dizkienak". Neskak aspaldi dabilta mutil bat konpartitzeko asmotan, antza; egin berri dituzte hogeita hamar urte eta urtebetetze jai horren bukaera aldera

euren ohiko errito bati jarraituz, mutil beraren haziaz haurdun geratzeko promesa egin ei zioten elkarri. Jonek honetaz guztiaz ez daki ezer. Margaren eskua bere hanka tartean oraindik, Asunen ezpainak gogoan, baina hiruren arteko sexu-saio batean ez du pentsatzen. Bere bizitzako mementorik lizunena ari da bizitzen. Une hori kraskatuz Asun agertzen da. Joni eskatzen dio, erregumutxo prometagarriaz, ea berak eramango dituen Victorren etxera berriz ere (Margak duen atxurraekin ezin baitezake gidatu), maleta biak hartuta. Aldi berean, Marga Joni so, konplize begiradaz.

ANA ARREGI

8.- "Baietz esan eskatuko dizudan guztiari"



Ziraun bizkorra hanka tartean, suge mingaina ezpainen, hori da Jonen paradisua momentu honetan, baina, bapatean zerbitzaria alboratu zaio eta ea Jon bera den galdetu dio. Baietz esan duenean, eskuetan gutun bat ipini dio. Azalean ez dago ezer idatzita, baina Jon konturatu da azaleko papera oso latza dela, oso gogorra. Kostatzen zaio irekitzea. Sugandilak, behintzat, aldendu egin dira eta hasierako Viktorrekin ari dira hizketan, hirurak

maleta banarekin. Ez dio ezta bere buruari galdetu nondik agertu den Viktor berriro. Eta goputzean sentitzen zuen kalentura ahaztu zaio. Bere arreta guztia gutunean dauka jarrita momentu honetan. Azkenean lortu du irekitzea eta barruko papera, azalekoarekin konparatuz guztiz bestelakoa da; ematen du arrozkoa dela, leun-leuna.

Eta gutunak halaxe dio:

"Baietz esan eskatuko dizudan guztiari. Benetan, ez da alferrik izango."

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

* Oilasko erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

EL BAR Kutxi

eguneko menua

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Jazkarprint
Imprenta / Inprimategia

INPRIMATEGIA

Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Maitasuna bereizketaz bizi da, bazterketaz, distantziat.
Hitzetan bizi da eta ekintzetan hil."

Jon gutuna irakurri eta gero, itsatsita bezala geratzen da hitzen artean. Alde batetik, kaligrafia berezia da, ekialdeko herri batetik etorriko balitz bezala. Bestela, iruditzen zaio han idatzita dagoenak erritmoa daukala, poema baten moduan entzuten dela:

**"Baietz esan
eskatuko dizudan guztiari
Ez da alferrik izango, benetan.
Maitasuna bereizketaz bizi da,
bazterketaz, distantziat.
Hitzetan bizi da eta ekintzetan hil."**

Behin eta berriro irakurtzen ditu hitzak, buruz ikasi beharko balitu bezala. Ahaztu egin zaizkio dagoeneko bikiak, eta maletak, eta jatetxeko ergel guztiak. Ezpainetan gutunaren hitzak bakarrik ditu beste ezpain batzuen ferekak bezala.

Eta bapatean begiak ireki ditu. Ezpainak mugitzen ari zaizkio, hurrengo musua ari dira bilatzen. Eskuak hanka tartean ditu, sugandilen atzean. Eta buruan poema antzeko zeozer. Hau bai amets korapilatsua! Hamar ordu baino gehiago egin du lo eta bart edan zituen pomelo zukutan beratutako kaliforniako mahaspasek istorio arraroa idatzi dute bere buruan. Benetan istoria bitxia! Zer behar du izan buruan horrelako ametsak izateko. Maletak eta bikiak horiek al dira bizitzan dituen ardura bakarrak?


Oraindik konfundituta, ohetik jaiki da dutxa hartzeko, baina ur txorrotaren azpian dagoela ezin ditu burutik kendu irudi batzuk. Nor da Asun hori? Koadrilako lagun baten antza zeukan baina hark ez du Asun izena, Marian baizik. Eta bikia? Noski, bikia

Marian bera zen. Berak ez du bikirik ezagutzen, edo ez ditu lagunaren artean, behintzat. Eta zer egiten zuen Pablok bere pentsamenduetan ezkatuta?

Dutxatik atera denean lasaiago dago. Nola azalduko luke psikoanalista batek izan duen amets hau? Seguruenez esango luke amarekin izan nahi duela daukan baino harreman estuagoa, baina ezintasunak nagusitzen direla, askotan amaren aurkako sentimendu kontrajarriak atzeman dituelako, horrexegatik agertzen dela bere irudia bikoiztuta ametsen. Bestalde, aitarekiko sentitzen duen distantziak ametsen irudi maskulino lausotuekin duela zerikusia. Eta bla bla bla...

Eta atera da kalera. Lehenago baina, postontzian begiratu eta gutun berezi bat somatu du. Esku artean duenean konturatzen da papera latza dela, gogorra, eta kostatu egiten zaio irekitzea. Baina barruan dagoen gutunaren papera guztiz bestelakoa da; arrozkoa, leun-leuna. Eta hitzen kaligrafiak ekialdetik aspaldi zetozen gutunen kutsua du. Baina irakurri baino lehen jakingo du zer dioen gutunak. Igorlea nor den baino ez du jakin nahi.

Behealdean dago idatzita, hitz dotoreetan:
Tsvetaieva, Pasternak, Rilke Zazpigarren ametsa



© ana arregi & geu aldizkaria

MERCURIO-KARBIDIA
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

historia zertzeladak



LAMINITURRI egoitza Logroñon eta jarduera eremua Errioxa duen elkarte da, eta bere helburuen artean Euskara babestea eta, gutxienez Erkidegoaren zenbait zatitan erabili izan den hizkuntza dela onartzea daude; gainera, gure hizkuntzak lehen erreferentziak lurralde honetan ditu.



Haitzen azpiko bidea, Naiaratik ateratzean, Baldaranerako bidean

Elkarteren lokaletan euskara ikasten duten zenbait talde izateaz gain, Euskararen Bidea sustatzen ari da elkarte hau, beste hainbat jardueraren artean. Jarduera hori bultzatzeko ideia, ofizialki gure "Lingua navarrorum" hau ahaztu egiten zutela ikusita sortu zen, eta horixe diote beste hainbatek ere, "Amigos de La Rioja" elkarteak edota Alfredo Gil del Riok, hainbat urtean Madrilgo Errioxako Etxearen presidente izandakoak, adibidez. Ahaztuta daukatela argi erakusten du, esaterako, gertakari honek: duela gutxi Gaztelaniaren milagarren urteurreneko ospakizunetan, aipatutako elkarte horiek izan ezik, beste inork ez zuen ezer esan Euskararen milagarren urteurrenaz, eskubide bera izan arren eta leku berean (Yusoko monasterioan, Donemiliaga Kukulan, Errioxan) eta agiri berean agertu arren bi hizkuntzetan egindako lehen oharrak.

Euskarazko hitzak,
Yusoko monasterioan,
Donemiliaga Kukulan



Bideak hiru helburu nagusi ditu:

- Euskararen ezagutza, erabilera eta errespetua.
- Bidea pasatzen den bi erkidegoen arteko harremanak bultzatzea eta sustatzea.
- Fisikoki nahiz giza eta kultur ikuspegietatik bidearen eta honen inguruko lurren ezagutza bultzatzea.

Errioxako Donemiliagako Kukulara iristen den bide honek (edo bertan jaiotzen den bide honek) Bermeoko udalerriak du irteera (Bizkaiko adarrean, kontu hau gero azalduko badugu ere), besteak beste, Donemiliagako fraideek arrantza egiteko aukera handiagoak izateko (arraina zen beren elikadura dietaren oinarria) udalerri horretan erosi zituztelako lur batzuk. Gainera, Bermeoko udalerriaren "historia" dokumentu horiekin hasten da.

Bidea hau 8 etapatan egingo da (zazpi gau), eta egunean batez beste 20-22 kilometro egingo dira etapa bakoitzeko. Uztailaren 5ean abiatuko da ibilaldia, eta uztailaren 12an amaituko.

1.a- Uztailak 5, larunbata.	Bermeo - Gernika - Mendata.
2.a- Uztailak 6, igandea	Mendata - Durango - Urkiolako monasterioa.
3.a- Uztailak 7, astelehena	Urkiola - Otxandio - Legutio.
4.a- Uztailak 8, asteartea	Legutio - Mendibil - Estibalizko monasterioa.
5.a- Uztailak 9, asteazkena	Estibalitz - Okia - Saseta - Albaina.
6.a- Uztailak 10, osteguna	Albaina - Lagran - Biasteri.
7.a- Uztailak 11, ostirala	Biasteri - Eltziego - Cenicerio - Naxera.
8.a- Uztailak 12, larunbata	Naxera - Badaran - Donemiliaga Kukula.

Bidea oro har oso ondo dago azpiegituren ikuspegitik, bai ostatuari dagokionez -aterpetxeetan (Mendatan bat eraiki berria da, 36 litera ditu eta informazio zentro eta baserri museo bat ditu ondoan; Urkiolako Elizaren aterpetxeak 24 litera ditu, eta bada Diputazioarena den beste bat, literarik gabea...) nahiz hoteletan (Biasterin, Naxeran...) - eta bai jatetxe eta janari dendei dagokionez. Lo egiteko tapiza eta zakua eramatea komeni

EUSKARAREN BIDEA, uztailaren 5etik 12ra, Laminiturri elkartearen eskutik

inaki gorostidi, Laminiturriko kidea

bada ere, oso gutxitan erabiliko da lehenengoa. Gastuak ostatuari eta jatorduei dagozkienak izango dira.

Bide hau luzaroan euskara maite dutenek eta errespetatzen dutenek erabil dezaten jaio da, baina ez du bakarrik izateko asmorik; hau da, ibilbide honi Bizkaiko Adarra deitu zaio, gerora Gipuzkoako ibilbidea eta Nafarroakoa ere sortuko direlakoan, izan ere, guztiak Donemiliagan bukatu arren, interesa duten taldeei gehien komeni zaien udalerrian "jaio" baitaiteke bidea.

Bide honen bidez, euskararen historian nahiz oro har euskal kulturen leku berezia beten duten pertsonen lana omendu nahi da. Hona hemen horietako pertsonaia batzuk: lehenengo etapan, Sukarrietan, Sabino Arana (1865-1903), herri horretako kanposantuan baitago lurperatuta; gero, Mendatan, Bitoriano Gandiaga (1928-2001), herri horretan jaio baitzen; lurreta-Durango Joseba Sarrionaindia, bertan jaio baitzen 1958an; Urkiolan Iparragirre (1820-1881), bertan ondokoa azaltzen duen plaka bat baitago: 1854ko ekainaren 13an, San Antonio egunez, Jose Maria Iparragirrek Urkiolan "Gernikako Arbola" kantatu zuen, Euskal Herrian lehendabiziko aldiz. Gernikako Arbolaren landare txikia, 2000-III-19koa; aurrez, Atxarteko harrobitik

pasatzerakoan, Jose Migel Barandiaranen (1889-1991) eta Telesforo Aranzadiren (1860-1946) oroimenez ezarritako plaka bat dago, eta honakoa dio bertan: Euskal Ikerlarien Oroimenez. Atxarteko lurraldeok arakatzen hasi sereneko 60. Urteurrenean Gerediaga Elkartek. 1932-Abuztua-1992; Otxandion Felipe Arrese Beitia oroituko dugu (1841-1906), kale nagusiko monolitoaren ondoan, eta poema hauxe irakurriko dugu: "Euskaldun jayo nintzan, euskalduna azi, euskara utsi amak, eustan irakatsi, euskara maite maite, zabalitz neugaz beti, euskara ill eskero, es dot gura bizi"; Legutien on Kixoteren itzultzaileak, Jose de Palacio Sáenz de Viteri (1823-?) eta Serafín de Ascasubi (1864-1940); Biasterin Félix María Samaniego (1745-1801), eta honen lan ezezagunenetakoa, "Fabula erotikoak"; Naxeran, berriz, Esteban Manuel de Villegas, etab...

Naturaren ikuspegitik nahiz historikoki garrantzi handia duten lekuetatik pasatuko da bidea: Urdaibaiko Natur Parkea eta Urkiolakoa; lurretako Amataz ermita, eta bertako plaka batek hala dio: "Sancho IV de Navarra, el 26 de agosto del año 1072, donó al Monasterio de San Millán de la Cogolla, esta Iglesia. Con el rey firma D. Iñigo López y Doña Toda, su mujer, señores de Vizcaya. La R.S.V. de los Amigos del País, en el noveno centenario 1072-1972"; Urkiola eta Estibalizko monasterioak, Okiatik Sasetako haizpitarteak; Albainako haizulo eremutarrak; San Quiliz haizulo edo ermita, Toro portutik gertu, Lagrandik Biasterirako bidean ("ikazdunen bidea" ere deitzen zaio zati honi); La Hoyako herria Biasterin; Ceniceroko Askatasunaren estatua; Naxerako Santa Mariako monasterioa, Nafarroako erreinuko hiriburua; eta, amaitzeko, Yuso eta Susoko monasterioak.

Ikus dezakegunez, luzera begira finkatu eta erabilia izango den bide bihur daiteke, eta horixe nahi genuke. Arrazoiak ez dira falta. Orain, bai Euskal Herrian eta bai Errioxan, oro har biztanleek nola hartzen duten eta erakundeek nola babesten duten ikustea falta da.

© inaki gorostidi & geu aldizkaria

Itzulpena: azitiri



Biasterriko harresia

IÑIGO SARASOLA, Geu aldizk



Mendian gora, itsasoan behera, baratzeko lanak, zinea, bidaiak eta marraztea ditu atsegin 39 urteko beasaindar-gasteiztar honek eta zaletasun hauetatik azkena da hain justu Iñigo Sarasolaren lanbidea. Geu aldizkarian hastapenetatik komikigile dugun artista handi honek betidanik izan ditu papera eta arkatza esku artean.

Txiki Zabaloren marrazkiekin behin-betiko markatuta, Sarasolak ikastolako marrazkilari onena zela ekartzen du gogora: "Nire asmoa argi zegoen, baina etxean aipatu nuenean istilua sortu zen". Hala eta guztiz ere, Batxilergoa bukatu ondoren Donostiako akademia batera marrazketa publizitarioa ikastera joatea lortu zuen. "Egun batean, publizitate-agentzia batetik marrazkilari baten bila etorri ziren eta ikasketak bukatu baino lehen lanean hasi nintzen", aipatzen du Sarasolak.

Urteak aurrera joan ahala Iñigo Sarasolak aurrera egin du bere lanean. Gurelesa, Kaiku, Orlando, Etxeondo, Pryca, Tetra Pak España eta horrelakoentzat ontzi diseinuak, prentsa iragarkiak, telebistako spotak eta publizitate kanpainak bururatu eta egin izan ditu. "Eskeletarako argazkiak reprovokarekin tramatzea izan zen nire lehendabiziko lan ordaindua", dio Iñigok, "baina oraingoak dira garai gozoenak: 2D eta 3D animazioak bideo eta multimedia produktuetarako, liburueterako marrazkiak..., eta hilero GEU aldizkarian komikia. Ezin hobea!".

Aspaldian ere Iñigok Gasteizen aurkitu duela bere bizitokia eta geure artean dugula: "1987an nire lanpostua Donostian zegoen. Kokoteraino. Urtero arazoak pisu bat aurkitzeko ("probintzianoek" ikasturtean ikasleei alokatu nahi, gero, udako hila batean madrildarrek diru mordoa uzteko), soldata eskasa, postal-hiri garestia... Egun batean, lan eskaintza erakargarria jaso nuen, Gasteizen. Etxebizitza askoz merkeagoa (garai hartan), soldata altuagoa, gaur nire emaztea denarekin bizitzeko aukera, gustuko giroa, amona gasteiztarra... Aukera erraza: etorri ginen".

-Noiztik zabilta Geu aldizkarian?

Ez dut gogoratzen zehatz-mehatz zein aletan argitaratu nuen lehenengo istorioa, baina ia hasieratik. Behin batean irakurle batek Txerokik Gasteizeko

euskaldunon "Don Celes" zela esan zidan.

-Komikigintzan ibiltzeagatik zaigu Iñigo Sarasola ezagun. Txeroki izeneko "krestadun" punky bati bizitza eman zenion urte askotan Geu aldizkarian. Zure pertsonajeekin identifikatzen al zara?

Pertsonaje honek nire aitonaren ezaugarri asko zeuzkan. CAFen lan egiten zuen eta beti bere mendiko txabolan zegoen, ehizan pentsatzen, baratzean, uso, oilar eta untxien artean. Txikitari orduak eta orduak pasatzen nituen hantxe, lapurtutako berunezko tutuekin balinak egiten, kartutxoak betetzen, obretan hartutako egurrekin jostailuak asmatzen. Beti esaten zuen etxean egindako gauzak erositakoak baino hobekiago zirela. Birziklatzearen maisu bat zen. Nire pertsonajea omenaldi bat izatea nahi nuen eta horregatik bere itxura fisiko eta psikologikoa eman nion. Izena Mikel Laboaren hitz batzuetatik hartu nuen: "Euskaldunok, Europako azken indioak gara".

Ea pertsonajearekin identifikatzen naizen? Beno, genetikak zerbait markatzen du.

riko komikigilea eta artista paregabea



-Txeroki gureaz agurtu eta Tink ile laranja kizkurreko neskatoaren gora-beherak margotzen dituzu egun aldizkarian. Protagonismoa oraingoan emakumezkoengan, beraz. Zergatik aldaketa hau eta nolakoa da pertsonaje bat sortzeko prozesua?

100. alea ospatzeko Txerokiren liburua atera zenean, aldizkaritik pertsonajea aldatzeko proposamena egin zidaten. Ezetz esaten oraindik ez dut ikasi eta tira, Tink sortu nuen. Ideia gustukoa zen eta alaba bat izateak erakutsi zidan gaur egungo gizarteak jarraitzen duela neskei betiko baloreak (edo okerragoak) ezartzen eta horrek amorratzen nau. Badago Lara Croft, baina nahiago nuen gure kutre-heroia izatea. Kasu honetan pertsonajeak Txerokiren filosofia berari jarraitzen zaio baina askoz errebindikatiiboagoa da. Bestetik, pertsonajeak sortzeko nire modua, kalean, telebistan edo tabernan ezezaguna den norbaiti begiratu eta itxurak ezaugarri batzuk burura ekartzen dizkit.

-Bineta pare batean fikziotik urrun errealitatea margotzeko aukera ematen al du komikiak?

Zer dakar zure aburuz komikiak egiteak?

Komikia, zinea edo literatura bezala fikzio eroa da, eta erakutsi nahi duen aurpegia bainoago errealitate biluzia, gogorra edo aspergarria adierazteko edota salatzeke ere balio du. Hori bai, komikiak zinean baino asmakizun gehiago eman dezake, ez duelako atzean industria karka eta diruzale bat, zinea baino askoz merkeagoa da... Tamalez komikiak ez du irakurle asko eta oso jende gutxi arriskutzen da produktua ateratzeko orduan, horregatik gaur egun ezinezkoa da Euskal Herrian komikiez soilik ogibidea izatea. Niretzat komikiak egiteak GEU aldizkariak antolatu ohi dituen ekintzetan doan sartzea eta noizbehinka afarietara gonbidatuta joatea dakar, ja, ja, ja!

-Seguru txikitan super-heroi batek txunditu zintuela... Zein izan duzu erreferente?

Ba ez. Ez naiz inoiz izan fikziozko super-heroi baten jarraitzaile amorratua. Txiki Zabalo, Oteiza, Buñuel, Kafka, Fritz Lang, Orson Welles, Vladimir Maiakovsky, aitona etab. izan dira nire heroia bakarrak.

Naturaren isladak



Helicella itala. Vallegul mendirako bidean (Valderejo) aurkitu nituen barraskilo batzuk.

SAHARA

ESMARAKO GOSARIAK

*Tea, ogia olioarekin,
marmelada eta
kafesnea. Gosaria bi
ordu luzez luza
zitekeen.*

Mohamedek bere etxera gonbidatu gintuen, eta berak ikasgela gisa erabiltzen zuen zabaltzako gela txiki bat utzi zigun. Bertan prestatzen zuen bere tesia, labar grabatuez eta margoez hitz egiten zuten testuak ikasiz, Saharako antzinako tribuez, kolonizatu zituen Espainiarekin zuten harremanez mintzatzen ziren testuak ikasiz, ...gainera, armairuak liburu zaharrez beteta zituen. Liburu haietan Zauiairen istorioak kontatzen ziren, lehen Esmararenak, Maa el Aenin-ek oued Saguia el Hamra-ren gainean eraikitakoarenak.

Berak, apurka-apurka, bere kulturaren toki mitikoak erakutsi zizkigun: T'baila, Aasli Bukersh, ...bera izan zen herri sahararrak pairatzen duen okupazioaren errealitateari begiak ireki zizkigunak.

Gosaria beheko solairuan zen, sahararren artean ohikoa den legez, familia bazkaltzeko, hitz egiteko eta sienta botatzeko biltzen den egongela. Lehen tea hartzen genuen bitartean, Mohamedek bere bideoetako bat ikustera gonbidatu gintuen.

Hiri santua gorria da, denborak higatutakoa. Espainiarren garaian eraikitako etxeak, kuartelak eta elizak hesituta geratu dira, marokoarren eraikin berriek itota, euren fisionomia eraldatu da eta kolore epelago batez ere "apaindu" dute.

Kolono berrien etorrerarekin batera, haien bizimodua ere aldatu da. Lehen, etxeetako atea zabalik zeuden, denek ezagutzen zuten elkar. Orain, drogak, prostituzioak, militarren nonahikotasunak, hitz egiteko beldurrak... eragina izan du gizartearen eta atea itxi egin dira. Marokoko erreinuak hare eta harrizko murru bat altxatu du, alanbrada eta meatzezko murru bat Esmaratik 150 kilometro eskasera, herri oso bat zatitzen duen murrua.

Bigarren tea gozoagoa da; ez ordea errealitatea, hori mingotzegia da. Mohamedek diosku bere ama Mauritania dagoela; egun, familiak bertan elkartzen dira berriro, 27 urte igaro ostean. Sahara orok erbestean du arimaren zati bat, Tindouf-eko errefuxiatu zelaia, baina murrua igarotzea lortu dute, elkar besarkatzeko, negar egiteko eta barre egiteko, eta zain daude, oraindik konponbide baten zain daude, erreferendum baten zain? ...euren lurraldean aske izatea espero dute, Mendebaldeko Saharan, basamortua eta itsasoa.

Bideoak erakusten digu Espainiak deskolonizazio prozesuan izan zuen jarrera penagarria, Ibilaldi Berdea, hegazkin marokoarrek erbestera ihesi zihozten herriarren gainean egindako bonbardaketa, Saharako basamortuko gunerik ezatseginenak gizatiartu duen herri oso baten lana, Bake Plan bat...

Bachir hirugarren tea hartzeko unean dator. Mohamedek deitu dio, basamortuko irteera presta dezan. Bere aurpegia eguzkiak zartatutako lur kolorekoa da, esku txikiak ditu, zimurtuta, talja bakarti baten enborraren gisakoak. Gamelu eta ahuntzak ditu, baina orain Land Rover Santana zahar baten laguntzaz egiten du artzantza.



Sahararrek Kandahar deitzen dioten auzo batean bizi da, 2001eko azaroan Mohamed VI erregearen bisita zela eta azken matxinadak sortu ziren auzoan. Protestaldi horien ondorioz, hoxe bat lagun atxilotuak izan ziren, eta oraindik horietako batzuk non dauden inork ez daki. Bachir-en lehengusu bat desagertutako sahararren zerrenda luzean dago.

Gauze irtengo gara. Janaria, tea, azukre ugari, mantak eta irratia. Bihar aire zabalean gosalduko dugu.

Basamortua askea da, Saharako atea beti daude zabalik, ezagutzen duenarentzat, eta Bachirrek badaki nola saihestu jendarme eta polizia marokoarrek hiri bakoitzaren sarrera eta irteeretan jarrita dituzten kontrolak. Igartzen zaie nazkatuta daudela beti galdera berberei erantzun behar izateaz, euren bizitzaz galdetzen dieten ezezagun batzuei aurpegi onak jartzeaz. Land Roverrean asaldura kutsua sumatzen da.

Behin kanpamentua jarrita eta teontzia lehen sutontzien gainean ipinita, Mohamedek irratia belarrira itsatsita zuela, irratiairenen bat bilatzen zuen, Saharako Irrati Nazioanala topatu arte; esan zuenez, egunero Errefuxiatu Zelaiaetik emititzen zuen. Guztiok isildu ginen, eta sugarrek aurpegiak argitzen zizkiguten bitartean, berriak erne entzuten genituen, gaztelarazko bertsioa, musika eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari buruzko aipamenak ere behin eta berriz entzuten genituen.

Suaren berotasunean geure buruek gordetzen duten harkaitz handiaz hitz egin ziguten, kondairak dioenez, haraino eraman baitzuten hegan Sid Ahmed Laroussi; eskorpioez eta haien ziztadak sendatzen dituzten sendabide naturalez, Leyouad izeneko toki batez eta bertan bizi diren deabruak...

Egunsentia hotz eta heze esnatu zen. Desertuan euririk ez zuela egiten uste genuen.

Tea, ogia olioarekin, marmelada eta kafesnea. Gosaria bi ordu luzez luza zitekeen.

DIOCESANAS-MENDIZORROTZAKO OSTALARITZA ESKOLA

TXERRI IBERIKOAREN MASAILAK PATATEKIN, TIPULATXAREKIN ETA ENDIBIA GLASATUEKIN

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAIK:

Masailak	1.250 g.
Itsas gatza	1 c.s.
Irina	1 c.s.
Oliba olio	1'5 dl.
Tipulak	250 g.
Azenarioak	100 g.
Porruak	2 u.
Ardo beltza	0,5 l.
Oporto ardoa	2 dl.
Brandy	1 dl.
Kanela eta iltzea	1+3 u.
Salbia	2 adar.
Ezkaia eta ereinetza	2 zotz + hosto 1
Haragi salda edo ura	0,5 l.
Maldon gatza	0,5 c.s.
Hornigaia:	1.a
Patata lodi torneatuak	8 u.
Tipulatx lodi zurituak	4 u.
Piperbeltza alean	4 u.
Oliba olio	2 c.s.
Gatz larria	0,5 c.c.
Hornigaia:	2.a
Endibia ertainak	2 u.
Hirugihar ondua xerretan	4 u.
Gurina	10 g.
Limoi zukua	1 c.s.
Azukre beltza	0,5 c.c.
Piperbeltz txikitua	2 ale.

PRESTAKETA

- Barazkiak zuritu eta dadotan moztu ondoren, oliba olio apur batean frijitu poliki-poliki.
- Bien bitartean, zartagin batean olio bota eta masaila frijitu, aurretik gatza bota eta irinetan pasa ondoren. Haragia eltze batean edo laberako ontzi batean utzi, brandyarekin garreztatu, ardoekin busti eta apur bat egiten utzi; gero espeziak, belarrak eta frijitutako barazkiak bota eta dena batera berotu. Salda bota gero eta su motelean eta ondo estalita egosten utzi, haragia bigundu arte (laberako ontzian egin badugu bukaeran labeaz sartuko dugu 180° C-tan).
- Masaila ontzi batera aterako dugu, espeziak eta belarrak kenduko dizkiogu eta hondo apur bat gehiago egingo dugu, saltsa loditu arte. Iragazkian pasa eta gorde.

1. hornigaia:

- Torneatutako patatak eta tipulatxa ur gazitan egosi, ura kendu eta oliba oliotan erre poliki-poliki, gatza eta piperbeltz



txikitua bota eta bero mantendu.

2. hornigaia:

- Endibiai olio eta gurinez bustitako ontzi egoki batean salteatu, azukre beltza, piperbeltz txikitua eta limoia bota, estali

eta izerdia botatzen utzi.

- Endibiai ontzitik atera eta hirugiharren bi xerrekini bildu, zotzekin lotu, zartagin batean gorritu, plater batera atera eta perrexila zabaldu gainetik.

PLATERAREN ANTOLAKETA

- Plateraren albo batean, masaila xerrak jarri, saltsa bero eta findua bota, maldon gatz apur batekin ondu eta gainean salbia eta ezkaia adartxoak jarri; ondoan diagonalean moztutako endibia erdi bat (zotzik gabe, baina hirugiharrarekin), patatak eta tipulatxa jarri.

itzulpena: aztiri

<p>LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAÍS</p> <p>En homenaje al insigne Historiador Arqueólogo y Amigo del País</p>		Pertsonaia	Zaren horrek	Izan dadila	Gipuzkoa-ko herria	Nafarroa Behereko udalerria
		Araudia	Azalera neurria	Barazki mota	Gera-lekuak	
		Herri berekoak				
		Eihera				
Bakuna	Hizki baten izena		Bor			Bokala
Tartekatu	Urrikalpen		Tantalioa			... egin, goitik ari
					Gizon izena	
					Zerga ezaguna	
Ald., kolore mota			Musika tresna			
Leioako auzoa			Hosto			
			Euskaraz eta kitto!			Röntgen
			Atx!			H ₂ O
Nafarroako hiria				Seguru		
Soka				Kanpo		
					Areago	
					Oxigenoa	
1. eta 3. bokalak		Interjekzioa		Herri kirola		●

Hitz Gezidunak (LUMA)

***IRUDIA:**
Urizaharrako (1733-1817) idazle eta apaiza. Arabako toki desberdinetako izenen euskal etimologiaren gaineko ikerketak egin zituen eta Humboldt, filologo eta estatu-politikariari berri interesgarri ugari eman zizkionetako bat dugu, batez ere euskararen inguruan.

Soluzioa: 38. orrialdean

ARTE ETA LANBIDE ESKOLA



GRABATU TAILERRA

EDERTASUNA, SENTSAZIOAK ETA SENTIMENDUAK. Hiru hitz bakarrik, baina bakoitzak beren aldetik eta batera amaigabeko aukerak gordetzen dituztenak.

Nola irudikatu? GRABATU tailer baten atea baino ez duzu ireki behar, eta sartu jakina, ordura arte zure gogoan soilki zirriborro gisa zegoen hori agertzea ahalbidetzen dizuten hainbeste eta hain desberdin diren teknika adierazkorrekin saiakuntzak egiteko paradaz gozatu ahal izateko.

EDERTASUNA lortzen duzu soilik landuko duzun kobrezko xaflaren txartaketa ikustearekin; SENTSAZIOAK sentitzen dituzu azidoaren hozkak utzitako erliebeen gainetik eskuak leunki limurtzen dituzunean; eta SENTIMENDUAK topatzen dituzu prozesu guztian barrena, oro islatuta geratzen delarik matrizean lana bukatutakoan.

Jesus Gomez de la Cruz

(Grabatu Kalkografikoko ikaslea Gasteizko Arte eta Lanbide eskolan)

itzulpena: geu

GRINA ETA MUGIMENDUA erakusketa

GASTEIZKO ARTE ETA LANBIDE ESOLAKO BIDEO ETA ARGAZKIGINTZAKO 2. MAILAKO IKASLEEN MUNTAKETA.

"Istripu: Gaur arte ipar. Ezbeharra; berezk., bat-bateko eta ustekabeko gertaera, ondorio okerrak dituen. Auto, tren, hegazkin istripua. Lan istripu baten ondorioz. Izugarrizko istripua; bost haur eta gidaria ikaztuak. Istripuz hila.

Ezbehar: Zorigaitza, gertaera dohakabea. Ik. behargabe. Bidean ezbeharren bat gerta

ez dakien. Ezbeharrez hil zen, hogeit urte zituela. Ik. istripu. Gaitzak eta oinazeak oro kentzen direla mundutik, ezbeharra eta zorigaitzak hor dira. Euskalari trebea eta idazle handia batera izateko ezbeharra soinean daramanak, "gogo erdibiturik" bizi beharko du. Lurkoi eta fededun, atseginetan zoro eta ezbeharretan gizon. Ustekabeko ezbeharra. 2. G. er. Gaizki egina; kaltea."

Ibon Sarasola. Euskal Hiztegia.

ekainaren 13tik uztailaren 13ra,
Montehermoso Kulturuneko
Jovellanos aretoan

ZIUR GAUDE, BELDURRA DAUKAGU.

Beldurra heriotzari, lehendabizikoa; toki hutsak eta okupatu gabeak betetzeari; isiltasun partekatuari; ez egoteari; gaizki ulertuarekin elkar bizitzeari; beldurra behartzen dugun seme edo alabagatik.

LASAI BIZI GARA, EGOERA KONTROLATU EGIN BEHAR DUGU.

Baina ez esnatzeak eragiten duen izugarrizko bertigo hor dago, zer gertatuko litzatekeen aurrerantzean ezer gehiago ez balitz, dena bukatuko balitz (irudikatzen saiatu, ahalegindu); Bizitzak ihes egiten du zabalik dagoen ahotik, itxi ezazu; beti gure artean dagoen istripuaren susmoa, zer gertatuko litzateke oraingo honetan baiezkoa balitz, auto batek aurretik eramango bazintu eta guztia fisikoa balitz, krak egin eta azkar pentsatu, azkenik, desagertu.

Oharkabetasunaren hainbat momentu/maila bizi ditugu. Sufrimendu, poz eta gogogabetasun protokoloak lotzen ditugu gure

izatea ordenan ipintzeko aitzakiarekin, sendoago, egonkorrago bihurtzeko saiakera laño batean. Baina, halere, ez-egonkorra dena konsubstantziala iruditzen zaigu, zoriak definitzen gaitu, istripuek erakusten digute.

Istripuak moldatzen ditu gure gorputzak, gure izatearen berri duten tokiak eta ez dutenak. Egoerak sortu eta aldatzen ditu, inguratu egiten gaitu, ikusezin, eta soilik batzuetan jartzen da agerian. Ez du gupidarik eta apetatsua da, axolagabetasun berarekin eman eta kentzen du.

Hori guztia dela eta, azken buruan (edo azkenaurrekoan, edo...), kalteak konpontzea besterik ez zaigu geratzen.

Juan Arrosagaray. Bideo tailerrak. A.I.E.

e.b.z.



arabako euskal hotsak & antecedentes del euskera en alava



“Arabako euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan da, mende askotan gehienena izaki, eta hainbat garai eta zonaldean ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra”. Honela dio ‘Arabako Euskal Hotsak’ (Antecedentes del Euskera en Alava, gaztelerazko bertsioan) liburuaren kontrazaleko testu hasierak, honako esaldien ondoren:

ETA ZER TOPATUKO DUZUE BARRUAN, ATALEZ ATAL ETA ORRIALDEZ ORRIALDE? ARABAKO EUSKARAREN HISTORIA, ANTZINAROTIK GAUR EGUN ARTEAN HONELA SAILKATUA:

• SARRERA OROKORRA

• ANTZINAROA

Lehen lekukotzak
Lutbelscottio. Durruma Donemiliaga
Luntbelsar. Durruma Donemiliaga
Helasse. Miñao Goien
Aituneo, Araia. Aitea, Olabarri. Illuna, Tresponde
Antzinako toponimoak
Sinesmen zaharrak eta arkeologi aztarnategiak

• LEKUKOTZAK. X-XX. mendeen bitartean

Euskal izenak Añanan - 932. Didaco Beilaz - 952. Ferro de Alava - 1025. Ayalatarak - 1076. Kalagorriko Elizbarrutia - 1257. Urizarra - XIII. mendea
Gegarako judu euskaldunak - XV. mendea
Euskaraz zin egiteko eredia XVI. mendeko Araban
Gasteiztik pasatutako bidaiariak (I) - 1525 / 1572
Landuchio-ren Hiztegia. Gasteiz - 1562
Ezkontzak Lautadan. Trento - 1565
Batzar Berezia. Araba - 1576. Otoak - 1587
Sinodoen Konstituzioak - 1601. Andagoia - 1604
Inkiszioaren epaiketak. Arabako Mendialdea - 1611. Araia - XVII. mendea
Gasteiztik pasatutako bidaiariak (II) - 1612
Arriola - 1614. Harana - 1622
Lautada - 1655. Murga - 1668

• “ES UN DEBER DE LA JUVENTUD ALAVESA ILUSTRADA EL APRENDER EL VASCUENCE” (RICARDO BECERRO DE BENGOA, GASTEIZ-1845-1902).

• “QUE ESTE MONUMENTO NO SE PIERDA PARA SIEMPRE Y PUEDA TRANSMITIRSE ENTERO E INCORRUPTIBLE A LAS FUTURAS GENERACIONES” (FERMIN HERRAN Y TEJADA, GALTZA-1852-1908).

Juan de Arcaya - 1656
Artziniega - 1682. Langraiz Oka - XVIII. mendearen hasiera
Lagran - 1726. Galarreta - 1748
Laudio - 1723. Luxaondo - 1734
Murga - 1760. Laudio - 1774. Etxaurren - 1775
Gasteizko inguruak eta Araba - XVIII. mendearen amaiera.
Zigorak - XVIII. mendearen 2. erdia
Batzar Nagusia - 1794. 22 Ermandade - 1798. Albeiza - XVIII. mendea
Argantzun - 1805/6. Manuel Llano - 1807. Zigoitia - 1817.
Batzar Nagusia - 1819. Amurrio - XIX. mendearen hasiera
Gasteiz - 1840 / 1869. Arabako Mendialdea - 1850 / 1870
Itzultzailea Agurainen - 1842
Araia - 1840. Gamarra - 1850. Gasteiz - 1849. Urizarri Ganboa - 1850. Luku, Urbina - 1860
Euskara Araban 1850ean
Urrunaga - 1871. Institutua - 1883. Diputazioa - 1885
Euskal hiztunak XX. mendearen lehen erdian
Jakakortexarena, Nafarrate - 1933. XX. mendea
Trebiño
Errioxa
Arabako euskararen lekukotasun adierazgarrienen mapa.
Añanalea
Euskararen hedapen atzeragarria Araban mendez mende

• DATU GEHIGARRIAK

Ojacastrako Forua eta euskal toponimia Errioxako Komunitatean
Hitz zerrenda Zaitegin
Bula Ineffabilis (Baranbio, Laudio) - 1864. Gaspar Astete-ren Katixima (Laudio)

geure eskaintza

• EGILEAK

Juan Perez de Betolaça. Betolatza. 1556/60-1599/1600
 Martin Portal. Urizaharra. ?-1610
 Simon Martinez de Ochoa. Gasteiz. 1695
 Pedro Ignacio de Barrutia y Basagoitia. Aramaio. 1682-1759
 Joan Baptista Gamiz Ruiz de Otheo. Sabando. 1696-1773
 Andres Bicente de Baraciarte. Durana. 1741-1826
 Julian Garcia de Albeniz. Araia. 1745-1812
 Felix Antonio Lopez de Luzuriaga. Langarika. 1756 -?
 Josef Paulo de Ulibarri y Galindez. Okondo. 1775-1847
 Jose de Palacio Saenz de Vitery. Legutio. 1823-?
 Ignacio de Galindez Amirola. Laudio. 1839-?
 Zeferino Lopez de Ilarraza. Araia. 1848-1888
 Serafín de Ascasubi. Legutio. 1864-1940
 Raimundo German Olabide. Gasteiz. 1869-1942
 Federico Belaustegigoitia Landaluze. Laudio. 1876-1947
 Abdon Gonzalez de Alaiza. Musitu. 1876-1926
 Gabirel Jauregi Uribarren. Aramaio. 1895-1945
 O(b)don de Apraiz y Buesa. Gasteiz. 1896-1984
 Arabako euskararen aldaerak historian
 Obretako azalak

• SUSPERTZAILEAK

Joaquin Joseph Landazuri y Romarate. Gasteiz. 1730-1805
 Diego Lorenzo Prestamero Sodupe. Urizaharra. 1733-1817
 Mateo Benigno Moraza. Gasteiz. 1817-1878
 Ramon Ortiz de Zarate y Galarreta. Arriola. 1817-1883
 Ricardo Becerro de Bengoa. Gasteiz. 1845-1902
 Federico Baraibar y Zumarraga. Gasteiz. 1851-1918
 Fermin Herran y Tejada. Gesaltza. 1852-1908

• ATZERAEGITEA

Debekuak euskarari. XVIII - XX. mendeak
 Erantzunak Araban

• HITZAK

Araban gazteleraz erabilitako euskal hitzen lagina

• LABURPENEA

Mugak Antzinaroan
 Indoeuroparrak eta erromatarrek
 Berant Antzinaroko indartzea
 XI. mendea. La Reja. Gehiengo euskalduna
 XIII. mendea. Urizarra. Euskara Ebroren hegoaldean
 Latina, erromantzea eta euskara
 XVI. mendea. Gasteiz elebiduna. Araba euskaldun
 Euskara, "landa-hizkuntza"
 XVIII. mendea. Hizkuntz politikaren aldatzea
 Lehen erantzunak
 Foruen galera
 XX. mendea. Oso mende zaila
 Euskara haziz Araban

• MAPAK

Euskara Araban 1850ean
 Arabako euskararen lekukotasun adierazgarrienen mapa.
 Añanaldea
 Euskararen hedapen atzeragarria Araban mendez mende
 Arabako euskararen aldaerak historian

• ERAKUSKETA

Erakusketa ibiltaria
 "Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del euskera en Alava"
 Erakusketa

• BIBLIOGRAFIA – ITURRIAK

Hau guztia duzue, beraz, Arabako euskararen baitan bidaiatzeko gonbitea. **Murgil zaitetzte Arabako euskararen historia interesgarri bezain iradokitzaile honetan, eta bide batez, lagundu iezaguzue aldizkariaren aurtengo defizitari aurre egiten, Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava egitasmoari esker aldizkariako 2002 urteko 15.000 euroko defiziteko zati handia kitatu ahal izan baitugu, 12.000 euro hain zuzen. Ea aurtengoan ere liburuen salmentak aukera polit hori ematen digun!:**

- Euskal Herriko liburudenda askotan topatuko duzue! (19,8 euro)
- Elkarteko bazkide eta aldizkariako harpidedunentzako eskaintza berezia: 17,5 euro (Geu-ren bulegoan).

"HIZKUNTZAREN BIZITZA ERREPIKA DA. HIZKUNTZA (ETA KULTURA) BATEN BIHOTZA ERREPIKA DA"

Literatur lehiaketa

(Urrian berriro berreskuratuko dugu)
ekaineko galdera Joxean Sagastizabal idazleak idatzi azken bi liburua zeintzuk dira?

Erantzuna: Zorotariko Euskal Hiztegia (1996) eta Gerturik daukagu odola (1999)
 Irabazlea: Maite Alonso.
 Zorionak!
Udazken arte!

azoka (iragarkiak hilerro berritu behar dira)

- LAGUN BAT BEHAR DA DATORREN IKASTURTETIK AURRERA
- URTEBETEKO HAURRA ZAINTEZKO. 945131786 (AMAIA)

kangeuroak

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

- Ordutegi guztiak: Maria. 656745969
- Miryam. 656761588 · Amaia. 635742429
- Arratsaldez: Patxi. 652743205
- Gaeuz: Nerea. 658733934
- Asteburuak: Nagore. 945281124
- Marta. 606415235

denbora-pasaren soluzioa
 (35. orr.)

	⊛	P	⊛	Z	⊛	B	⊛	A	⊛
A	R	A	U	T	E	G	I	A	
⊛	E	R	K	I	D	E	A	K	
⊛	T	⊛	E	S	E	⊛	P	I	L
T	X	E	R	T	A	T	U	⊛	T
⊛	E	R	R	A	⊛	A	L	B	O
E	R	R	O	M	O	⊛	A	E	K
⊛	T	U	T	E	R	A	⊛	Z	I
L	O	K	A	R	R	I	A	⊛	A
⊛	A	I	⊛	O	I	⊛	T	O	K

*Prestamero


KOMIKI

TINK



FATXIX
RELOADED

Ekainaren 21etik aurrera Zure kioskoan



Euskaldunok behar dugun **berria**